



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Berdintasuna  
Igualdad

---

2022KO UDAL AURREKONTUAK GENEROAREN  
IKUSPEGITIK AZTERTZEA

---

## AURKIBIDEA

<b>1. LEGE ESPARRUA.....</b>	<b>3</b>
<b>2. GENERO-IKUSPEGIA BARNERATZEN DUTEN AURREKONTUAK.....</b>	<b>4</b>
<b>3. DONOSTIAKO UDALEKO IBILBIDEA UDAL AURREKONTUETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEARI DAGOKIONEZ.....</b>	<b>5</b>
<b>4. AURREKONTU OROKORRAK.....</b>	<b>7</b>
<b>5. GENERO ALDETIK GARRANTZI GEHIEN DUTEN PROGRAMEN JARRAIPENA.....</b>	<b>14</b>
<b>5.1. OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK.....</b>	<b>17</b>
5.1.1. UDALZAINGOA.....	17
5.1.2. MUGIKORTASUN BERTIKALA.....	18
5.1.3. HIRI MUGIKORTASUNA.....	19
5.1.4. HIRIGINTZA.....	21
5.1.5. ETXEBIZITZAKO ENRPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA-DONOSTIAKO ETXEGINTZA.....	22
5.1.6. BIDE PUBLIKOAK.....	24
5.1.7. ARGITERIA PUBLIKOA.....	25
5.1.8. PARKEAK ETA LORATEGIAK.....	26
5.1.9. HONDARTZAK.....	27
<b>5.2. GIZARTE BABES ETA SUSTAPENERAKO ESKU-HARTZEAK.....</b>	<b>31</b>
5.2.1. BERDINTASUNA.....	31
5.2.2. GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA.....	33
5.2.3. DONOSTIA LAGUNKOIA.....	34
5.2.4. GIZARTE ZERBITZUETAKO ZENTROAK.....	35
5.2.5. GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA.....	36
5.2.6. TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK.....	37
5.2.7. GIZARTE HARRERAKO ZENTROA.....	38
5.2.8. GIZARTERATZEA.....	39
5.2.9. HAUR ETA FAMILIEN PREBENTZIOA.....	40
5.2.10. ADIN NAGUSIKO PERTSONEN SUSTAPENA.....	41
5.2.11. ADIN NAGUSIKO PERTSONEN EGOITZA.....	42
5.2.12. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA.....	43
5.2.13. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK.....	44
<b>5.3. ONDASUN PUBLIKO LEHENETSIEIEN EKOIZPENA.....</b>	<b>45</b>

5.3.1. IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA.....	45
5.3.2. MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA) / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK).....	46
5.3.3. HEZKUNTZA PROGRAMAK.....	48
5.3.4. GIZA ESKUBIDEAK.....	49
5.3.5. KULTUR ANIZTASUNA.....	50
5.3.6. DONOSTIA KULTURA.....	51
5.3.7. GAZTERIA.....	53
5.3.8. DONOSTIA KIROLA / KIROLA, ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA).....	54
<b>5.4. ESKU-HARTZE EKONOMIKOAK.....</b>	<b>56</b>
5.4.1. DONOSTIA TURISMOA.....	56
5.4.2. SUSTAPENA, S.A.....	57
5.4.3. DBUS.....	57
5.4.4. MANTENUA ETA HIRI ZERBITZUAK; ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA.....	58
5.4.5. PROIEKTU ETA OBRAK.....	59
<b>5.4. ESKU-HARTZE OROKORRAK.....</b>	<b>61</b>
5.4.1. HERRITARREN PARTAIDETZA.....	61
<b>6. GASTU ERALDATZAILEAREN BARIAZIOAREN GAINEKO JARRAIPENA.....</b>	<b>62</b>

## LEGE ESPARRUA

**ERKIDEGOKO ARAUDI** mailan, **erreferentziako bi lege esparru** adierazi ditzakegu, tokiko erakundeek beren udal aurrekontuetan genero-ikuspegia sartu eta aztertzea berresten dutenak eta horretarako deia egiten dutenak:

<p><b>4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO</b></p>	<p>“ <b>3.4. artikulua:</b> Euskal herri-agintek <b>genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan</b>, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten”.</p> <p>“ <b>14. artikulua:</b> Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten <b>ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte</b> bakoitzaren aurrekontuetan”</p>
<p><b>EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANA</b></p> <p><b>GOBERNU ONAREN ARDATZA</b></p>	<p>Bi helburu espezifiko:</p> <p><b>HELBURUA: G.O.2:</b> Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuak areagotzea.</p> <p><b>HELBURUA: G.O.10:</b> Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.</p>

Era berean, **DONOSTIAKO UDALAREN UDAL ARAUDIAN BERTAN**, Emakume eta gizonen berdintasunerako **IV. Planaren (2020-2024)** bidez (2020ko urriaren 20ko Tokiko Gobernu Batzordean onartua), helburu horretara bideratutako neurri ugari jasotzen dira:

<p><b>DONOSTIAKO UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA (2020-2024)</b></p> <p><b>LEHENDABIZIKO PROIEKTU-EMAITZA:</b></p> <p><i>“Aurrekontuak eta kudeaketa feministako planak”</i></p>	<p><b>Azpiproiektua:</b> <i>Berdintasuna, funtsezko elementua erabakiak hartzeari dagokionez:</i></p> <p><b>1.3. neurria</b> Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasuna indartzea.</p> <p><b>Azpiproiektua:</b> <i>Aurrekontuak genero-ikuspegi batetik aztertzea</i></p> <p><b>1.6. neurria</b> Programa gehiago aztertzea genero-ikuspegitik.</p> <p><b>1.7. neurria</b> Partida moreen egikaritzearen gaineko kontrola hobetzea.</p> <p><b>1.8. neurria</b> Kudeaketa-planetako berdintasun-ekintzak aurrekontuan barneratzen ote diren aztertzea.</p> <p><b>1.9. neurria</b> Aurrekontuaren sarrera aztertzen hasia.</p> <p><b>1.10. neurria</b> Aurrekontu-programen analisisian hautemandako ezberdintasunak gainditzeko neurriak proposatzea.</p>
---	---

## GENERO-IKUSPEGIA BARNERATZEN DUTEN AURREKONTUAK

**Aurrekontu publikoa** da politika publikoak batzen dituen eta horiek diseinatu, planifikatu eta kudeatzen dituen berezko **zeharkako tresna**.

Generoaren ikuspuntua jasotzen duen aurrekontu publiko bat aipatzen dugunean, **emakume eta gizonen artean**, politiko publikoek eragiten duten jardute-eremu guztietan, **posizio sozialeko, ekonomikoko, ordezkartzako eta partaidetzako partidari dagokionez dagoen aldea** kontuan izateari buruz ari gara mintzatzen.

Generoaren ikuspuntua jasotzen duen aurrekontu publiko batean faktore hori jaso behar da hura zehazterakoan. Azken helburua hura gauzatzuz generoarekin lotuta hautemandako balizko ezberdintasunak ezabatzen ari ote diren edo, aitzitik, horiek mantendu edo, are, areagotzen ari ote diren **ebalatu eta neurtu ahal izatea da**.

Aurrekontu publikoek generoa dute, eta ez dira, inolaz ere, neutralak. Beraz, berdintasuna sustatuko duten politikak garatu nahi baldin baditugu, ezinbestekoa da aurrekontuak generoaren ikuspuntu batekin garatu eta aztertzea.

Horrenbestez, genero-ikuspegia barneratzen duten aurrekontuen helburua bikoitza da:

1. **Aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten inpaktua zein den jakitea**, ahal dela, beste ardatz diskriminatzaile batzuetan erreparatuz, adina, migrazio-estatusa edo errenta-maila kasu. Kontua ez da emakume eta gizonentzat berdin gastatzen ote den ebaluatzea, baizik eta gastu hori beren egiazko premietara egokituta ote dagoen.
2. **Berdintasuna sustatzeko tresna gisa baliagarri izatea**. Generoaren mainstreaminga, gaur egun, egiazko berdintasunera jotzeko gaur egun ditugun formula nagusietako bat da. Estrategia horren helburua esku-hartze publiko guztiak genero-ikuspegitik berrikustea da, horiek betikotu ez daitezten edo genero aldetiko ezberdintasunak areagotu ez ditzaten.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromiso politikoa operatiboa izan dadin hura bermatzeko neurriak behar dira, esate baterako, emakume eta gizonen berdintasunerako araudi espezifikoak sortzea, aurrekontu-baliabideak areagotzea eta politikak garatzeko, politikak planifikatu eta ebaluatzeko eta gardentasunaren kultura sustatzeko behar bezala gaitu eta legitimatutako egitura eta pertsonak gaitzea.

***Aurrekontuak genero-ikuspegi batetik aztertzea ezberdintasunaren inguruko ezagutza sortu eta horiei aurre egiteko moduak zein diren jakiteko lagungarri den analisirako tresna bat da, eta erabakiak informazioz hartzea ahalbidetzen du.***

***Helburuak aurrekontu-baliabideekin uztartzeko funtsezko tresna bat da.***

## DONOSTIAKO UDALEKO IBILBIDEA UDAL AURREKONTUETAN GENERO- IKUSPEGIA TXERTATZEARI DAGOKIONEZ

**Genero-ikuspegia barneratzen duten aurrekontuak eratzeko prozesua 2013ko ekainean** hasi zen, Berdintasuneko Negoziatuak Andaluziako Juntak arlo horretan izandako esperientzia ezagutzeko lan-jardunaldia antolatu zuenean. Jardunaldian politikari eta zuzendaritzako kideek parte hartu zuten, eta baita Programazio, Ikerketa eta Aurrekontuen unitateko teknikariek eta sail ugaritako aurrekontuaren konfigurazioaren gaineko ardura duten zenbait teknikariek ere.

2013ko uztailan, Berdintasun eta Ogasun sekzioek, Andaluziako esperientziako zenbait elementu hartu arren, Donostiako Udaleko tamaina, kompetentzia eta denboretara egokitzen saiatzen zen metodologia bat adostu zuten.

Une horretatik aurrera aurrekontu-programei eta horiekin lotutako jarduera eta langileei buruzko informazioa biltzeari ekin zitzaion, Euskal Herriko Unibertsitateko Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga irakasleen aholkularitzarekin.

**2014ko otsailan “Genero-ikuspegia barneratzen duten aurrekontuak sortzeko gomendioen txostena”** argitaratu zen, 2014ko aurrekontu-partidari lotuta, ordurako udaleko osoko bilkuran onartua. Txosten horretan oinarri metodologikoa finkatu zen, gomendioen bidez emateko hurrengo urratsekin batera. Gainera, alde aurretik bildutako informazioa aztertzeari esker, prozesuan sakontzeko lehentasunezko atalak identifikatu ziren, hots: Azpiegiturak eta hiri zerbitzuak, Mugikortasuna, Gizarte Ekintza, Gizarte Sustapena, Herritarren Partaidetza eta Donostia Kultura.

2014. urtean zehar, gobernuko taldeak generoak aurrekontuetan duen inpaktuari buruzko prestakuntza jaso zuen. Era berean, aipatu atalekin eta Ogasun eta Berdintasun arloetako teknikariek prestakuntzako lanaio bat burutu zen.

**2014ko abenduan “Udal aurrekontuen analisia genero-ikuspegitik 2015”** izeneko txostena aurkeztu zen, 2015eko aurrekontuarekin lotuta, une hartan proposamen-fasean zena.

Hainbat hilabeteko geldialdiaren ondotik, 2015eko azken hiruhilekoan prozesuari heldu zitzaion berriro. Programazio, Ikerketa eta Aurrekontuen unitatearekin zuzeneko lankidetzan, **2015eko abenduan “Udal aurrekontuen analisia genero-ikuspegitik 2016”** izeneko txostena aurkeztu zen, 2016ko aurrekontuarekin lotuta, une hartan proposamen-fasean zena. Azken horretan bi aldaketa nagusi sartu ziren:

- Txostenak udal aurrekontuen analisiari heltzen dio soilik. Lantaldearen eta kontratazioari buruzko analisia txosten espezifikoa egitera bideratzen da.
- Txosten aurrekontu-programen inguruan egituratzen da, sailkako edo zuzendaritzen arabera analisiari heldu beharrean.

Ordutik, Berdintasun Negoziatua eta Programazio, Ikerketa eta Aurrekontuen Unitatea elkarrekin ari dira lanean genero-ikuspegia udal aurrekontuetan sartzeko prozesuan.

Prozesu horren ondorioz, Donostiako Udaleko emakume eta gizonen berdintasunerako **III. Plana ebaluatzeko txostenean** (2014-2018) jasotzen den eran:

- **Berdintasun arloko aurrekontu-programa eta sail ugaritako berdintasun-partidak areagotu egin dira**, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Planean jasotzen diren neurriak garatzea ahalbidetu dutenak.
- Berdintasunerako **gastu eraldatzailea areagotu egin da**.
- **Berdintasuna gaineratu da aurrekontuak eratzeko prozesuan**: norabide askotako aurrekontuen proposamena, aurrekontu-eztabaidan gaineratzea, berdintasun arloan errespetatu beharreko gutxieneko politiko batzuk identifikatuz.

Orain arte lortutakoa indartuz, eta aurrera egiten saiatzeko asmoarekin, 2020ko urriaren 20an Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako **Donostiako Udaleko Berdintasunerako IV. Planean**, *Gobernu Onaren Ardatzaren* barnean, **Aurrekontuak eta kudeaketa feministako planak** atalera bideratutako *Proiektu-Emaitza* bat jasotzen da. Asko dira esparru horrekin lotutako neurriak:

*BERDINTASUNA, FUNTSEZKO ELEMENTUA ERABAKIAK HARTZEARI DAGOKIONEZ:*

1.3. Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasuna indartzea.

*AURREKONTUAK GENERO-IKUSPEGITIK AZTERTZEA:*

1.6. Programa gehiago aztertzea genero-ikuspegitik.

1.7. "Partida moreen" egikaritzearen gaineko kontrola hobetzea.

1.8. Kudeaketa-planetako berdintasun-ekintzak aurrekontuan barneratzen ote diren aztertzea.

1.9. Aurrekontuaren sarrera aztertzen hasia.

1.10. Aurrekontu-programen analisisian hautemandako ezberdintasunak gainditzeko neurriak proposatzea.

Azkenik, aipatzekoa da **2022ko aurrekontuei dagokienez, 2021eko irailean, Berdintasunerako Unitateko teknikari guztiek parte hartu dutela, Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Sailak gonbidatuta, administrazio-unitate bakoitzarekin (sailak, erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak eta sozietate anonimoak) egindako bileretan.**

**Berdintasun-teknikari horietako bakoitzak parte hartu du berdintasunaren arloan solaskide diren administrazio-unitateekin egindako bileretan**, "partida moreen", hots, berdintasunerako neurri espezifikotara bideratutako partiden, jarraipen ahalik eta estuena egin eta genero-ikuspegitik sail bakoitzeko aurrekontuen eragina xehetasun gehiagoz ezagutze aldera. Guztira **19 bilkura** egin dira.

## AURREKONTU OROKORRAK

**2022rako** Donostiako Udalaren **aurrekontu-partida**, haren gainean egin baita txosten hau, **424.842.665,00 eurokoa da**. Horrek 2021eko udal aurrekontuetan **24.841.248,00 euroko igoera dakar (% + 6,21)**, 400.001.417,00 eurokoa izan baitzen hura.

Aipatzekoa da 2021eko aurrekontuetan oraindik ere ohiz kanpoko egoerak jasotzen zirela osasun-krisiaren ondorioz (udal-diru-sarreraren jaitsiera, zerbitzuen erabilera txikiagoa, jardueren garapena, etab.), eta hori kontuan hartu behar da konparazioak irakurtzerakoan.

Saillapen mota bakoitzari dagokionez, igoera/jaitsiera maila nahiz aurrekontu guztien gainean portzentaje handiena ordezkatzan duten esparruak aztertuko ditugu. Horrela, zera dugu:

### **GASTUEN ESPARRUAK**

Gastuen esparru guztietan igoerak izan dira, eta **Oinarrizko Zerbitzu Publikoen (Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna, Etxebizitza eta hirigintza, Komunitatearen ongizatea) (% +11,6) eta Ondasun publiko lehenetsien ekoizpenen (Osasuna, Hezkuntza, Kultura eta Kirolak) (%+ 7,1)** esparruetan izan da igoerarik handiena 2021. urtearekin alderatuz. Zentzu berean, bi esparru horiek islatzen dute **portzentaje handiena udal aurrekontuen gainean**, hots, **Oinarrizko Zerbitzu Publikoen esparruak (% 37,72) eta Ondasun publiko lehenetsien ekoizpenen esparruak (% 19,79)**. Bigarren kasu honetan proportzio hori apur bat igo da 2021. urtearekin alderatuz, orduan % 18,93koa baitzen.

Gastuen gainerako esparruetan **igoera % 5etik beherakoa** izan da. **Gizarte babes eta sustapeneko esku-hartzeen** esparruaren kasuan, generoaren ikuspuntutik oso esparru garrantzitsua, igoera hori **% +2,13koa** izan da.

GASTU-ARLOA	2021		2022		Aldea	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	149.612.048,00	%37,40	160.248.326,00	%37,72	10.636.278,00	%7,11
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA	33.914.808,00	%8,48	34.635.923,00	%8,15	721.115,00	%2,13
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	75.307.301,00	%18,83	84.066.810,00	%19,79	8.759.509,00	%11,63
JARDUKETA EKONOMIKOAK	76.622.638,00	%19,16	80.259.410,00	%18,89	3.636.772,00	%4,75
JARDUKETA OROKORRA	50.555.594,00	%12,64	51.581.000,00	%12,14	1.025.406,00	%2,03
ZOR PUBLIKOA	13.989.028,00	%3,50	14.051.196,00	%3,31	62.168,00	%0,44
<b>TOTAL</b>	<b>400.001.417,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>424.842.665,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>24.841.248,00</b>	<b>%6,21</b>

### **GASTUEN POLITIKAK**

**Guztira 19** dira gastuen **politikak**, eta **17** izan dira 2021. urtearekin alderatuz **igo** direnak, eta **2** jaitsi direnak. Azken kasu horretan daude **Langileen aldeko bestelako prestazio ekonomikoen** politika (-177.780,00€, % -12,45) eta **Finantza eta Zerga Administrazioa** (-6.606.587,00€, % -36,65).

Hiru izan dira **% 20tik gora igo** diren politikak, **Azpiegiturak** (+ 2.911.220,00€, % +27,27), **Gobernu Organoak** (1.482.789,00€, % +27,27%) eta **Zerbitzu orokorrak** (+6.149.204,00€, % +22,70).

Bost dira **%10 eta % 20 bitartean dauden politikak**: **Kirola** (+3.789.049,00€, % +17,63), **Komunitatearen ongizatea** (+6.726.448,00€, % +13,00), **Ingurumena** (+17.797.373,00€, % +12,76), **Osasuna** (+272.906,00€, % +12,13%) eta **Kultura** (% +12,12).



**%5 baino gutxiago igo** diren politiken artean dago, besteak beste, **Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena** (898.895,00€, % **+2,77**), generoaren ikuspuntutik oso politika garrantzitsua.

GASTU POLITIKAK	2021		2022		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
<b>OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK</b>	<b>149.612.048,00</b>	<b>%37,40</b>	<b>160.248.326,00</b>	<b>%37,72</b>	<b>10.636.278,00</b>	<b>%7,11</b>
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	48.972.126,00	%12,24	51.013.859,00	%12,01	2.041.733,00	%4,17
Etxebizitza eta Hirigintza	34.825.077,00	%8,71	34.895.801,00	%8,21	70.724,00	%0,20
Komunitate-Ongizatea	51.728.025,00	%12,93	58.454.473,00	%13,76	6.726.448,00	%13,00
Ingurumena	14.086.820,00	%3,52	15.884.193,00	%3,74	1.797.373,00	%12,76
<b>BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA</b>	<b>33.914.808,00</b>	<b>%8,48</b>	<b>34.635.923,00</b>	<b>%8,15</b>	<b>721.115,00</b>	<b>%2,13</b>
Erretiro pentsioak	20.000,00	%0,00	20.000,00	%0,00	0,00	%0,00
Enplegatuen aldeko beste prestazio	1.427.780,00	%0,36	1.250.000,00	%0,29	-177.780,00	-%12,45
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	32.467.028,00	%8,12	33.365.923,00	%7,85	898.895,00	%2,77
<b>LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA</b>	<b>75.307.301,00</b>	<b>%18,83</b>	<b>84.066.810,00</b>	<b>%19,79</b>	<b>8.759.509,00</b>	<b>%11,63</b>
Osasuna	2.250.430,00	%0,56	2.523.336,00	%0,59	272.906,00	%12,13
Hezkuntza	14.267.283,00	%3,57	14.445.006,00	%3,40	177.723,00	%1,25
Kultura	37.299.119,00	%9,32	41.818.950,00	%9,84	4.519.831,00	%12,12
Kirola	21.490.469,00	%5,37	25.279.518,00	%5,95	3.789.049,00	%17,63
<b>JARDUKETA EKONOMIKOAK</b>	<b>76.622.638,00</b>	<b>%19,16</b>	<b>80.259.410,00</b>	<b>%18,89</b>	<b>3.636.772,00</b>	<b>%4,75</b>
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	20.435.443,00	%5,11	20.834.941,00	%4,90	399.498,00	%1,95
Garraio publikoa	45.397.945,00	%11,35	45.714.422,00	%10,76	316.477,00	%0,70
Azpiegiturak	10.677.457,00	%2,67	13.588.677,00	%3,20	2.911.220,00	%27,27
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	111.793,00	%0,03	121.370,00	%0,03	9.577,00	%8,57
<b>JARDUKETA OROKORRA</b>	<b>50.555.594,00</b>	<b>%12,64</b>	<b>51.581.000,00</b>	<b>%12,14</b>	<b>1.025.406,00</b>	<b>%2,03</b>
Gobernu organoak	5.437.492,00	%1,36	6.920.281,00	%1,63	1.482.789,00	%27,27
Asministrazio orokorra	27.090.615,00	%6,77	33.239.819,00	%7,82	6.149.204,00	%22,70
Finantza eta zerga administrazioa	18.027.487,00	%4,51	11.420.900,00	%2,69	-6.606.587,00	-%36,65
<b>ZOR PUBLIKOAK</b>	<b>13.989.028,00</b>	<b>%3,50</b>	<b>14.051.196,00</b>	<b>%3,31</b>	<b>62.168,00</b>	<b>%0,44</b>
Zor publikoa	13.989.028,00	%3,50	14.051.196,00	%3,31	62.168,00	%0,44
<b>GUZTIRA</b>	<b>400.001.417,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>424.842.665,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>24.841.248,00</b>	<b>%6,21</b>

**Aurrekontu guztien ganean portzentaje handiena agertzen duten politiken artean (% 10etik gora)** hauek aipa ditzakegu: **Komunitatearen ongizatea** (% 13,76), **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** (% 12,01) eta **Garraio publikoa** (% +10,76).

### **AURREKONTU-PROGRAMAK**

**% 100etik gorako igoerarekin:** **Ustekabeak** (+2.144.668,00€, % +603,75), **Anoeta Kiroldegia** (+4.528.539,00€, % +572,53), **Herritarren partaidetza** (+1.870.274,00€, % +179,42), **Ekipamenduen plana** (+1.133.365,00€, % +129,37).

**Igoerak, era berean, adierazgarriak hauetan (% 20 eta % 100 artekoak):** **Mugikortasun bertikala** (+355.123,00€, % 61,23), **Babes zibila** (+68.648,00€, % +73,22), **Saneamendua** (+1.649.621,00€, % +48,14), **Polloe** (+684.209,00€, % +50,73), **Komunak** (+257.826,00€, % +59,32), **Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa** (+100.000,00€, % +61,73), **Proiektu eta obrak** (+2.462.180,00€, % +45,96), **Lehendakaritza** (+286.396,00€, % +24,20), **Informatika** (+1.633.629,00 €, +23,95 %)

Hauek dira gehien jaitsi diren programak, **% 20tik gorako murriztapenekin:** **Hezkuntza: Zuzendaritza eta administrazioa** (-113.219,00€, % -20,27), **Kirol instalazioak** (-1.990.964,00€, % -689,25), **Bidaiarien hiri garraio kolektiboak** (-190.400, % -57,42), **Ekialdeko distritua** (-316.792,00€, % -35,45), **Artxibategia** (1.301.917,00€, % -72,38) eta **Zeharkako zerbitzuak** (-93.806,00€, % -28,68).

Azkenik, ez da aurrekontuaren kontsignaziorik egin **Eraikuntza Birgaitzea** programarako. Izan ere, 2021ean ez da eskaerarik egin eta ez dira erabili esleitutako errekurtsioak.

**Aurrekontu guztien ganean portzentaje handiena agertzen duten programen artean (% 5etik gora)** hauek aipa ditzakegu: **Udaltzaingoa** (% 5,66), **Donostia Kultura** (% 7,21) eta **Dbus** (% +10,66).

2022KO UDAL AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK AZTERTZEA

AURREKONTU PROGRAMAK	2021		2022		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
<b>OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK</b>	<b>149.612.048,00</b>	<b>%37,40</b>	<b>160.248.326,00</b>	<b>%37,72</b>	<b>10.636.278,00</b>	<b>%7,11</b>
<b>Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna</b>	<b>48.972.126,00</b>	<b>%12,24</b>	<b>51.013.859,00</b>	<b>%12,01</b>	<b>2.041.733,00</b>	<b>%4,17</b>
Udaltzaingoa	23.915.428,00	%5,98	24.044.547,00	%5,66	129.119,00	%0,54
Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua	6.371.114,00	%1,59	6.784.974,00	%1,60	413.860,00	%6,50
Eskailerak, arrapalak eta igogailuak	335.955,00	%0,08	353.000,00	%0,08	17.045,00	%5,07
Mugikortasun bertikala	580.000,00	%0,14	935.123,00	%0,22	355.123,00	%61,23
Hiri mugikortasuna	9.331.688,00	%2,33	10.247.997,00	%2,41	916.309,00	%9,82
Herri babesa	93.757,00	%0,02	162.405,00	%0,04	68.648,00	%73,22
Prebentzio eta suhiltzaile zerbitzua eta sorospena	8.344.184,00	%2,09	8.485.813,00	%2,00	141.629,00	%1,70
<b>Etxebizitza et Hirigintza</b>	<b>34.825.077,00</b>	<b>%8,71</b>	<b>34.895.801,00</b>	<b>%8,21</b>	<b>70.724,00</b>	<b>%0,20</b>
Hirigintza	11.302.406,00	%2,83	9.155.424,00	%2,16	-2.146.982,00	-%19,00
Donostiako etxebizitza enpresa erakunde publikoa	14.955.544,00	%3,74	15.718.000,00	%3,70	762.456,00	%5,10
Rehabilitación de la edificación	2.142.070,00	%0,54	0,00	%0,00	-2.142.070,00	-%100,00
Bide publikoak	1.837.919,00	%0,46	4.212.209,00	%0,99	2.374.290,00	%129,18
Zolaketa eta asfaltatzea	4.587.138,00	%1,15	5.810.168,00	%1,37	1.223.030,00	%26,66
<b>Komunitate-ongizatea</b>	<b>51.728.025,00</b>	<b>%12,93</b>	<b>58.454.473,00</b>	<b>%13,76</b>	<b>6.726.448,00</b>	<b>%13,00</b>
Saneamendua	3.426.626,00	%0,86	5.076.247,00	%1,19	1.649.621,00	%48,14
Ura	2.964.709,00	%0,74	3.523.931,00	%0,83	559.222,00	%18,86
Ura eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa	804.412,00	%0,20	843.632,00	%0,20	39.220,00	%4,88
Hiriko hondakin solidoen bilketa	6.890.274,00	%1,72	7.601.464,00	%1,79	711.190,00	%10,32
Honkainen kudeaketa: San Marcos	3.279.337,00	%0,82	3.315.519,00	%0,78	36.182,00	%1,10
Honkainen tratatzea: San Marcos	9.776.927,00	%2,44	10.370.654,00	%2,44	593.727,00	%6,07
Bide eta etxaurren garbiketa	13.572.664,00	%3,39	15.077.527,00	%3,55	1.504.863,00	%11,09
Polloe	1.348.700,00	%0,34	2.032.909,00	%0,48	684.209,00	%50,73
Herri-argiteria	3.720.077,00	%0,93	4.217.317,00	%0,99	497.240,00	%13,37
Saneamendua eta arazketa: Añarbe	5.944.299,00	%1,49	6.395.273,00	%1,51	450.974,00	%7,59
<b>Ingurumena</b>	<b>14.086.820,00</b>	<b>%3,52</b>	<b>15.884.193,00</b>	<b>%3,74</b>	<b>1.797.373,00</b>	<b>%12,76</b>
Ingurumena: zuzendaritza eta administrazioa	407.100,00	%0,10	410.797,00	%0,10	3.697,00	%0,91
Parke eta lorategiak	6.607.143,00	%1,65	7.757.158,00	%1,83	1.150.015,00	%17,41
Artikutza	694.030,00	%0,17	716.684,00	%0,17	22.654,00	%3,26
Cristina Enea	618.750,00	%0,15	661.000,00	%0,16	42.250,00	%6,83
Iraunkortasuna	2.527.001,00	%0,63	2.949.726,00	%0,69	422.725,00	%16,73
Hiriguneetako hots-, argi eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa	300.966,00	%0,08	287.732,00	%0,07	-13.234,00	-%4,40
Hondartzak	2.931.830,00	%0,73	3.101.096,00	%0,73	169.266,00	%5,77
<b>BABES ETA SUSTAPEN ZOZIALEKO JARDUKETAK</b>	<b>33.914.808,00</b>	<b>%8,48</b>	<b>34.635.923,00</b>	<b>%8,15</b>	<b>721.115,00</b>	<b>%2,13</b>
<b>Erretiro pentsioak</b>	<b>20.000,00</b>	<b>%0,00</b>	<b>20.000,00</b>	<b>%0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>%0,00</b>
Klase pasiboak	20.000,00	%0,00	20.000,00	%0,00	0,00	%0,00
<b>Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk</b>	<b>1.427.780,00</b>	<b>%0,36</b>	<b>1.250.000,00</b>	<b>%0,29</b>	<b>-177.780,00</b>	<b>-%12,45</b>
Aldez aurretik erretiratzeko sariak	1.427.780,00	%0,36	1.250.000,00	%0,29	-177.780,00	-%12,45
<b>Gizarte-Zerbitzuak eta gizarte-sustapena</b>	<b>32.467.028,00</b>	<b>%8,12</b>	<b>33.365.923,00</b>	<b>%7,85</b>	<b>898.895,00</b>	<b>%2,77</b>
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	850.160,00	%0,21	799.484,00	%0,19	-50.676,00	-%5,96
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.245.639,00	%1,06	4.632.680,00	%1,09	387.041,00	%9,12
Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza	1.802.014,00	%0,45	1.906.520,00	%0,45	104.506,00	%5,80
Donostia Lagunkoia	75.000,00	%0,02	75.000,00	%0,02	0,00	%0,00
Apartamentu tutelatuak	1.740.417,00	%0,44	1.917.247,00	%0,45	176.830,00	%10,16
Gizarte abegi etxea	1.249.364,00	%0,31	1.378.956,00	%0,32	129.592,00	%10,37
Gizarteratzea	4.805.428,00	%1,20	5.105.073,00	%1,20	299.645,00	%6,24
Adin txikiko prebentzioa eta familia	3.092.655,00	%0,77	3.153.476,00	%0,74	60.821,00	%1,97
Adineko pertsonen sustapena	357.180,00	%0,09	491.283,00	%0,12	134.103,00	%37,54
Zaharren egoitzak	908.471,00	%0,23	918.755,00	%0,22	10.284,00	%1,13
Etkez etxeko laguntza	9.614.992,00	%2,40	9.214.984,00	%2,17	-400.008,00	-%4,16
Gizarte larrialdietarako laguntzak	2.638.355,00	%0,66	2.693.355,00	%0,63	55.000,00	%2,08
Berdintasuna	1.087.353,00	%0,27	1.079.110,00	%0,25	-8.243,00	-%0,76
<b>LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA</b>	<b>75.307.301,00</b>	<b>%18,83</b>	<b>84.066.810,00</b>	<b>%19,79</b>	<b>8.759.509,00</b>	<b>%11,63</b>
<b>Osasuna</b>	<b>2.250.430,00</b>	<b>%0,56</b>	<b>2.523.336,00</b>	<b>%0,59</b>	<b>272.906,00</b>	<b>%12,13</b>
Komunak	434.607,00	%0,11	692.433,00	%0,16	257.826,00	%59,32
Osasun sustapena	183.934,00	%0,05	185.710,00	%0,04	1.776,00	%0,97
Osasun publikoa eta animalien ongizatea	947.638,00	%0,24	962.812,00	%0,23	15.174,00	%1,60
Sorospen etxea	80.334,00	%0,02	80.334,00	%0,02	0,00	%0,00
La Perla balnearioa	603.917,00	%0,15	602.047,00	%0,14	-1.870,00	-%0,31

2022KO UDAL AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK AZTERTZEA

AURREKONTU PROGRAMAK	2021		2022		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
<b>Hezkuntza</b>	<b>14.267.283,00</b>	<b>%3,57</b>	<b>14.445.006,00</b>	<b>%3,40</b>	<b>177.723,00</b>	<b>%1,25</b>
Hezkuntza: zuzendaritza eta administrazioa	558.632,00	%0,14	445.413,00	%0,10	-113.219,00	-%20,27
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	7.219.681,00	%1,80	7.459.907,00	%1,76	240.226,00	%3,33
Udalaren musika eta dantza eskola	4.907.606,00	%1,23	5.068.909,00	%1,19	161.303,00	%3,29
Heziketarako programak	244.320,00	%0,06	245.316,00	%0,06	996,00	%0,41
Giza eskubideak	890.503,00	%0,22	824.380,00	%0,19	-66.123,00	-%7,43
Kultur aniztasuna	446.541,00	%0,11	401.081,00	%0,09	-45.460,00	-%10,18
<b>Kultura</b>	<b>37.299.119,00</b>	<b>%9,32</b>	<b>41.818.950,00</b>	<b>%9,84</b>	<b>4.519.831,00</b>	<b>%12,12</b>
Donostia Kultura	26.608.921,00	%6,65	30.634.202,00	%7,21	4.025.281,00	%15,13
Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	156.323,00	%0,04	159.738,00	%0,04	3.415,00	%2,18
Tabakalera	1.690.000,00	%0,42	1.690.000,00	%0,40	0,00	%0,00
Kultura: sustatzea eta bultzatzea	1.918.100,00	%0,48	1.922.900,00	%0,45	4.800,00	%0,25
Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	647.205,00	%0,16	726.474,00	%0,17	79.269,00	%12,25
Euskara	2.785.157,00	%0,70	2.962.961,00	%0,70	177.804,00	%6,38
Zahar etxeak	1.197.132,00	%0,30	1.334.071,00	%0,31	136.939,00	%11,44
Gazteria	2.296.281,00	%0,57	2.388.604,00	%0,56	92.323,00	%4,02
<b>Kirola</b>	<b>21.490.469,00</b>	<b>%5,37</b>	<b>25.279.518,00</b>	<b>%5,95</b>	<b>3.789.049,00</b>	<b>%17,63</b>
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	162.000,00	%0,04	262.000,00	%0,06	100.000,00	%61,73
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	4.272.605,00	%1,07	4.436.149,00	%1,04	163.544,00	%3,83
Donostia Kirola	2.977.069,00	%0,74	3.030.079,00	%0,71	53.010,00	%1,78
Kirol instalakuntzak	2.917.217,00	%0,73	926.253,00	%0,22	-1.990.964,00	-%68,25
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	10.370.602,00	%2,59	11.305.522,00	%2,66	934.920,00	%9,02
Anoeta Kirolegia	790.976,00	%0,20	5.319.515,00	%1,25	4.528.539,00	%572,53
<b>JARDUKETA EKONOMIKOAK</b>	<b>76.622.638,00</b>	<b>%19,16</b>	<b>80.259.410,00</b>	<b>%18,89</b>	<b>3.636.772,00</b>	<b>%4,75</b>
<b>Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak</b>	<b>20.435.443,00</b>	<b>%5,11</b>	<b>20.834.941,00</b>	<b>%4,90</b>	<b>399.498,00</b>	<b>%1,95</b>
Azokak	3.166,00	%0,00	3.166,00	%0,00	0,00	%0,00
Donostia Turismo	3.326.601,00	%0,83	3.827.986,00	%0,90	501.385,00	%15,07
La Sirena aterpetxea	435.738,00	%0,11	476.203,00	%0,11	40.465,00	%9,29
Uliako aterpetxea	254.110,00	%0,06	263.400,00	%0,06	9.290,00	%3,66
Aterpetxeak: zuzendaritza eta administrazioa	54.401,00	%0,01	53.609,00	%0,01	-792,00	-%1,46
Ekonomiko-garapena	824.967,00	%0,21	880.967,00	%0,21	56.000,00	%6,79
Fomento S.A.	15.536.460,00	%3,88	15.329.610,00	%3,61	-206.850,00	-%1,33
<b>Garraio publikoa</b>	<b>45.397.945,00</b>	<b>%11,35</b>	<b>45.714.422,00</b>	<b>%10,76</b>	<b>316.477,00</b>	<b>%0,70</b>
Garraioaren arloko administrazio orokorra	184.950,00	%0,05	237.909,00	%0,06	52.959,00	%28,63
Bidaiaren taldekako hiri garraioa	331.600,00	%0,08	141.200,00	%0,03	-190.400,00	-%57,42
Beste bidaiarien garraioa	31.400,00	%0,01	33.600,00	%0,01	2.200,00	%7,01
Dbus	44.849.995,00	%11,21	45.301.713,00	%10,66	451.718,00	%1,01
<b>Azpiegiturak</b>	<b>10.677.457,00</b>	<b>%2,67</b>	<b>13.588.677,00</b>	<b>%3,20</b>	<b>2.911.220,00</b>	<b>%27,27</b>
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.429.847,00	%0,36	1.575.047,00	%0,37	145.200,00	%10,15
Proiektu eta obrak	5.356.651,00	%1,34	7.818.831,00	%1,84	2.462.180,00	%45,96
Uraren hornikuntza: Añarbe	3.890.959,00	%0,97	4.194.799,00	%0,99	303.840,00	%7,81
<b>Beste jarduketa ekonomiko batzuk</b>	<b>111.793,00</b>	<b>%0,03</b>	<b>121.370,00</b>	<b>%0,03</b>	<b>9.577,00</b>	<b>%8,57</b>
Oficina municipal de información al consumidor/a	111.793,00	%0,03	121.370,00	%0,03	9.577,00	%8,57
<b>JARDUKETA OROKORRAK</b>	<b>50.555.594,00</b>	<b>%12,64</b>	<b>51.581.000,00</b>	<b>%12,14</b>	<b>1.025.406,00</b>	<b>%2,03</b>
<b>Gobernu organoak</b>	<b>5.437.492,00</b>	<b>%1,36</b>	<b>6.920.281,00</b>	<b>%1,63</b>	<b>1.482.789,00</b>	<b>%27,27</b>
Udal talde politikoak	3.831.436,00	%0,96	3.731.042,00	%0,88	-100.394,00	-%2,62
Gobernu organoak	1.197.731,00	%0,30	2.393.142,00	%0,56	1.195.411,00	%99,81
Hiri proiektua	408.325,00	%0,10	796.097,00	%0,19	387.772,00	%94,97
<b>Zerbitzu orokorrak</b>	<b>27.090.615,00</b>	<b>%6,77</b>	<b>33.239.819,00</b>	<b>%7,82</b>	<b>6.149.204,00</b>	<b>%22,70</b>
Komunikazioak	721.489,00	%0,18	753.429,00	%0,18	31.940,00	%4,43
Eraikinak	1.854.535,00	%0,46	2.008.565,00	%0,47	154.030,00	%8,31
Informatika (Udala)	0,00	%0,00	250.000,00	%0,06	250.000,00	
Informatika	6.821.298,00	%1,71	8.454.927,00	%1,99	1.633.629,00	%23,95
Ekialdeko distritua	893.594,00	%0,22	576.802,00	%0,14	-316.792,00	-%35,45
Lehendakaritza	1.183.513,00	%0,30	1.469.909,00	%0,35	286.396,00	%24,20
Agiritegia	1.798.681,00	%0,45	496.764,00	%0,12	-1.301.917,00	-%72,38
Giza baliabideak	3.321.210,00	%0,83	3.668.758,00	%0,86	347.548,00	%10,46
Idazkaritza orokorra eta lege zerbitzuak	1.374.361,00	%0,34	1.395.777,00	%0,33	21.416,00	%1,56
Barne zerbitzu orokorrak	2.320.066,00	%0,58	2.048.932,00	%0,48	-271.134,00	-%11,69
Itzulpen bulegoa	412.355,00	%0,10	392.645,00	%0,09	-19.710,00	-%4,78

AURREKONTU PROGRAMAK	2021		2022		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
Ibilgailuak	890.511,00	%0,22	939.012,00	%0,22	48.501,00	%5,45
Ekipamendu plana	876.066,00	%0,22	2.009.431,00	%0,47	1.133.365,00	%129,37
Zeharkako zerbitzuak	327.112,00	%0,08	233.306,00	%0,05	-93.806,00	-%28,68
Udaleko informazio unitatea	520.653,00	%0,13	625.375,00	%0,15	104.722,00	%20,11
Herritarren parte hartzea	1.042.410,00	%0,26	2.912.684,00	%0,69	1.870.274,00	%179,42
Herritarrenganako arreta	2.377.429,00	%0,59	2.503.503,00	%0,59	126.074,00	%5,30
Hauteskundeak	0,00	%0,00	0,00	%0,00	0,00	%0,00
Ezusteak	355.332,00	%0,09	2.500.000,00	%0,59	2.144.668,00	%603,57
<b>Finantza eta zerga administrazioa</b>	<b>18.027.487,00</b>	<b>%4,51</b>	<b>11.420.900,00</b>	<b>%2,69</b>	<b>-6.606.587,00</b>	<b>-%36,65</b>
Kudeaketa ekonomikoa	13.021.959,00	%3,26	6.198.787,00	%1,46	-6.823.172,00	-%52,40
Tributu sistemaren kudeaketa	5.005.528,00	%1,25	5.222.113,00	%1,23	216.585,00	%4,33
<b>ZOR PUBLIKOAK</b>	<b>13.989.028,00</b>	<b>%3,50</b>	<b>14.051.196,00</b>	<b>%3,31</b>	<b>62.168,00</b>	<b>%0,44</b>
<b>Zor publikoa</b>	<b>13.989.028,00</b>	<b>%3,50</b>	<b>14.051.196,00</b>	<b>%3,31</b>	<b>62.168,00</b>	<b>%0,44</b>
GUZTIRA	13.989.028,00	%3,50	14.051.196,00	%3,31	62.168,00	%0,44
<b>GUZTIRA</b>	<b>400.001.417,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>424.842.665,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>24.841.248,00</b>	<b>%6,21</b>

## GASTUEN SAILKAPEN EKONOMIKOAK

Gastuen kapituluari dagokionez:

**%20tik gora igo diren kapituluak** Kreditu orokorra (+2.144.688,00€, % +603,57) izeneko 5. kapitulua eta Egiatzko inbertsioak (+9.240.943,00€, % +21,41) izeneko 6. Kapitulua dira.

**Behera egin dute Finantza-gastuak** (-366.598,00, % +18,92) izeneko 3, kapituluak, Kapitalaren transferentzia (-116.915,00€) izeneko 7. kapituluak eta Finantza-aktiboak (-1.653.969,00, % -59,43) izeneko 8. kapituluak.

Gainerako kapituluaren kasuan: 1.,2.,4. eta 9. kapituluaren kasuan, **igoera % +0,92 (Transferentzia arruntak)** eta **% +6,39 (Ondare arruntan eta zerbitzuen gastuak) artekoa da.**

**Aurrekontuetan proportzio handiena dutenak** 1. kapitulua (% 36,86) eta 2. kapitulua (% 36,51) dira.

GASTUAK	2021		2022		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
1. Pertsonal gastuak	151.377.635,00	%37,84	156.607.555,00	%36,86	5.229.920,00	%3,45
2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	145.804.964,00	%36,45	155.123.342,00	%36,51	9.318.378,00	%6,39
3. Finantza-gastuak	1.937.468,00	%0,48	1.570.870,00	%0,37	-366.598,00	-%18,92
4. Transferentzia arruntak	33.783.018,00	%8,45	34.095.134,00	%8,03	312.116,00	%0,92
5. Kreditu globala	355.332,00	%0,09	2.500.000,00	%0,59	2.144.668,00	%603,57
6. Inbertsio errealek	43.159.597,00	%10,79	52.400.540,00	%12,33	9.240.943,00	%21,41
7. Kapital-transferentziak	2.197.187,00	%0,55	2.080.272,00	%0,49	-116.915,00	-%5,32
8. Finantza-aktiboak	2.782.843,00	%0,70	1.128.874,00	%0,27	-1.653.969,00	-%59,43
9. Finantza-pasiboak	18.603.373,00	%4,65	19.336.078,00	%4,55	732.705,00	%3,94
<b>GUZTIRA</b>	<b>400.001.417,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>424.842.665,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>24.841.248,00</b>	<b>%6,21</b>

## INBERTSIOAK 2022

2022an inbertsioak egitea aurreikusten da, **55.609.686,00 euroko baliora iritsiz**. 2021ean 48.139.627,00 euroko inbertsioak onartu ziren. Beraz, **% +15,52ko jaitsiera gertatu da.**

Aurrekontu-programen arabera, inbertsio handienak hauetan egin dira: Hirigintza (% 8,29), Etxebizitza- Etxebizitzaren enpresa erakunde publikoa (% 7,89), Bide publikoak (% 4,39) Anoeta Kiroldegia (% 8,13), Dbus (% 5,09), Proiektu eta obrak (% 9,77) eta Kudeaketa ekonomikoa (% 5,35). Azken kasu horretan, adierazi behar da programa honetan esleitu direla Next Generation funtsetatik eratorritako aurreikuspen posibleak.

Eskuragarri dagoen informazioarekin ezinezkoa da generoak aurreikusitako inbertsioetan duen garrantzian eta eraginean sakontzea. Horrenbestez, desiragarria izango litzateke etorkizunean aurreikusten diren inbertsioen gaineko informazio gehiago izatea: inbertsioak zein premiari erantzuten dion deskribatzea, inbertsioaren eragina jasotzen duen publiko xedea sexuaren arabera banakatuta ematea eta batzuk edo besteak onartzeko lehenespen-irizpideei buruzko informazioa ematea.

AURREKONTU PROGRAMAK	2022	
	GUZTIRA	%
<b>OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK</b>	<b>26.112.816,00</b>	<b>%46,96</b>
<b>Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna</b>	<b>3.211.764,00</b>	<b>%5,78</b>
Udaltzaingoa	93.000,00	%0,17
Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua	252.485,00	%0,45
Eskailerak, arrapalak eta igogailuak	50.000,00	%0,09
Mugikortasun bertikala	935.123,00	%1,68
Hiri mugikortasuna	1.681.156,00	%3,02
Prebentzio eta suhiltzaile zerbitzua eta sorospena	200.000,00	%0,36
<b>Etxebizitza et Hirigintza</b>	<b>13.292.748,00</b>	<b>%23,90</b>
Hirigintza	4.612.748,00	%8,29
Donostiako etxebizitza enpresa erakunde publikoa	4.390.000,00	%7,89
Bide publikoak	2.440.000,00	%4,39
Zolaketa eta asfaltatzea	1.850.000,00	%3,33
<b>Komunitate-ongizatea</b>	<b>6.610.704,00</b>	<b>%11,89</b>
Saneamendua	1.891.951,00	%3,40
Ura	1.000.000,00	%1,80
Hiriko hondakin solidoen bilketa	294.493,00	%0,53
Bide eta etxaurren garbiketa	2.124.260,00	%3,82
Polloe	900.000,00	%1,62
Herri-argiteria	400.000,00	%0,72
<b>Ingurumena</b>	<b>2.997.600,00</b>	<b>%5,39</b>
Parke eta lorategiak	1.255.000,00	%2,26
Iraunkortasuna	1.600.000,00	%2,88
Hiriguneetako hots-, argi eta atmosfera-kutsaduraren aurkako	30.000,00	%0,05
Hondartzak	112.600,00	%0,20
<b>BABES ETA SUSTAPEN ZOZIALEKO JARDUKETAK</b>	<b>1.380.547,00</b>	<b>%2,48</b>
<b>Gizarte-Zerbitzuak eta gizarte-sustapena</b>	<b>1.380.547,00</b>	<b>%2,48</b>
Gizarte abegi etxea	150.000,00	%0,27
Gizarteratzea	1.100.547,00	%1,98
Berdintasuna	130.000,00	%0,23
<b>LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA</b>	<b>8.451.530,00</b>	<b>%15,20</b>
<b>Osasuna</b>	<b>347.244,00</b>	<b>%0,62</b>
Komunak	200.000,00	%0,36
La Perla balnearioa	147.244,00	%0,26
<b>Hezkuntza</b>	<b>440.943,00</b>	<b>%0,79</b>
Hezkuntza: zuzendaritza eta administrazioa	0,00	%0,00
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	300.000,00	%0,54
Udalaren musika eta dantza eskola	140.943,00	%0,25
<b>Kultura</b>	<b>1.566.000,00</b>	<b>%2,82</b>
Donostia Kultura	1.421.500,00	%2,56
Zahar etxeak	90.000,00	%0,16
Gazteria	54.500,00	%0,10
<b>Kirola</b>	<b>6.097.343,00</b>	<b>%10,96</b>
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	100.000,00	%0,18
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	550.000,00	%0,99
Kirol instalakuntzak	926.253,00	%1,67
Anoeta Kiroldegia	4.521.090,00	%8,13
<b>JARDUKETA EKONOMIKOAK</b>	<b>8.923.118,00</b>	<b>%16,05</b>
<b>Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak</b>	<b>87.000,00</b>	<b>%0,16</b>
Donostia Turismo	72.000,00	%0,13
Uliako aterpetxea	15.000,00	%0,03
<b>Garraio publikoa</b>	<b>2.971.985,00</b>	<b>%5,34</b>
Bidaiaren taldekako hiri garraioa	140.000,00	%0,25
Dbus	2.831.985,00	%5,09
<b>Azpiegiturak</b>	<b>5.864.133,00</b>	<b>%10,55</b>
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	430.000,00	%0,77
Proiektu eta obrak	5.434.133,00	%9,77
<b>JARDUKETA OROKORRAK</b>	<b>10.741.675,00</b>	<b>%19,32</b>
<b>Gobernu organoak</b>	<b>1.630.000,00</b>	<b>%2,93</b>
Gobernu organoak	1.130.000,00	%2,03
Hiri proiektua	500.000,00	%0,90
<b>Zerbitzu orokorrak</b>	<b>6.136.662,00</b>	<b>%11,04</b>
Eraikinak	110.000,00	%0,20
Informatika (Udala)	250.000,00	%0,45
Informatika	1.355.000,00	%2,44
Ekialdeko distritua	455.425,00	%0,82
Lehendakaritza	200.000,00	%0,36
Agiritegia	23.716,00	%0,04
Ibilgailuak	140.000,00	%0,25
Ekipamendu plana	1.652.521,00	%2,97
Herritarren parte hartzea	1.950.000,00	%3,51
<b>Finantza eta zerga administrazioa</b>	<b>2.975.013,00</b>	<b>%5,35</b>
Kudeaketa ekonomikoa	2.975.013,00	%5,35
<b>GUZTIRA</b>	<b>55.609.686,00</b>	<b>%100,00</b>

**AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK**

2021ean aurrekontu parte-hartzaileen prozesua gauzatu da. Guztira 555 proposamen jaso ziren. Horietako batzuk batu egin ziren errepikatuta zeudelako eta beste batzuk kexak zirelako edo eduki ekonomikorik ez zutelako. Horrenbestez, **guztira 419 proposamen** aztertu ziren (pertsonek indibidualak luzatutako 317 proposamen eta elkarteek luzatutako 102 proposamen).

**Generoaren arabera banakatutako datuak** eskuratu ahal izan dira, izan ere, datu hori eskatu da, are baita elkarte baten izenean egiten bazen ere. Horrela, datu hauek ditugu:

Emakumeak	228
Gizonak	190
Ez bitarra	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>419</b>

Datu horietatik ezinezkoa izan da elkarte baten izenean eskaera egiten duten pertsonen dagozkienak ateratzea.

419 proposamenek betekizun hauek bete behar zituzten:

- Udal eskumenekoa izatea.
- Udal politika orokorrekin kontraesanean ez egotea.
- Interes publikokoak izatea.
- Inbertsio bat suposatzen duen eta urtearen barnean egikaritzen den proiektu bat izatea.
- Prozesu parte-hartzaile baten emaitza ez ezabatzea.
- Hurrengo aurrekontuak ez baldintzatzea.
- Bideragarritasun-azterlana onartzea.
- Gehienez 300.000 euroko inbertsioa suposatu beharko dute.

Aztertu ondotik, **93 izan ziren betekizun horiek betetzen zituzten proposamenak**, eta horiek bozketara eramane ziren. Botoa eman zuten pertsonen datuak: 1.953 emakume eta 1.770 gizon. Guztira, 3.723 pertsona.

Bozketaren ostean, **10 proiektu aukeratu dira 2022ko aurrekontuetan sartzeko**. 8 hiri mailan eta 2 Ekialdeko Distrituan. Hiriaren esparruan, 4 Hiri Mantenukoak dira, 2 Kirol arlokoak, 1 Proiektu eta Obrakoa eta beste bat Mugikortasun arlokoa. Horietako 4 gizonen proposatu zituzten eta beste 4 emakumeek (1 elkarte baten bidez eta 7 modu indibidualen). **Ez dago berdintasunarekin lotutako proiekturik**, ezta emakumeen elkarte batek edo elkarte feminista batek proposatutako proiekturik ere.

**Beste 10 proiektu 2023ko aurrekontuetan sartzeko izan dira hautatuak**. Horietako 2 elkarteek proposatutakoak dira eta 8 proposamen indibidualak dira. Guztira, 5 gizon eta 5 emakumeek proposatu dituzte inbertsio horiek: 5 Proiektu eta obrekin lotuak, 2 mantenukoak, 2 kirol arlokoak eta bat Gizarte Ekintzari lotua. **Hemen ere ez dago emakumeen elkarteek edo elkarte feministek proposatutako proiekturik**.

## 5. GENERO ALDETIK GARRANTZI GEHIEN DUTEN PROGRAMEN JARRAIPENA

Generoaren ikuspuntua barneratzen duten udal aurrekontuak aztertzekeo prozesuan eman ziren lehendabiziko urratsetako bat **aurrekontu-programak generoarekin lotuta zuen garrantziaren arabera sailkatzea** izan zen, garrantzia handia, ertaina eta txikia modura sailkatuta. Ordutik txosten ezberdinetan **programen hautaketa baten xehetasunezko azterketa** bat egiten da, orain arte **garrantzi handiko** programetan erreparatu ostean.

2021eko txostenean 108 aurrekontu-programen artetik 40 programa aztertu ziren. Egungo txostenean **40 aurrekontu-programa** berdinak aztertuko dira.

Horrenbestez, guztira **aurrekontu-programa guztien % 37** aztertuko da, hots, **udal aurrekontuaren zenbateko osoaren % 60,3**.

Abiapuntu modura hartuta 2021ean aurrekontu osoa % -8,13an murriztu zela, **eta 2022an % +6,21 igotzea proposatzen dela**, inguruabar horrek zuzeneko eragina du aztertutako programen bilakaeran, horrela:

- **Programa horietako 32**, hots, udal aurrekontu osoaren % 51,62, **areagotu** egin dira 2021eko aurrekontuarekin alderatuz.
- **7 programen** kasuan, hots, aurrekontu osoaren % 8,66, aurrekontuaren zuzkidurak **behera** egin du.
- **Programa batean**, aurrekontu osoaren % 0,03, zenbateko bera **mantentzen** da.

Hurrengo orrialdeetan aztertutako programen xehetasuna barneratzen da eta programa ezberdinak jarraian ematen den sailkapenaren arabera banatzen dituen taula bat jasotzen da:

- Udal aurrekontua (% +6,21) baino igoera handiagoa
- Udal aurrekontua baino igoera txikiagoa.
- Jaitsiera.
- Zenbatekoa mantentzen da.

Ondoren, programa bakoitzean xehetasun hauek emango dira: *Aurrekontuaren bilakaera*, programan sartutako *Gastu eraldatzailea* eta *Gomendioak*.



2022KO UDAL AURREKONTUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK AZTERTZEA

AZTERTUTAKO AURREKONTU PROGRAMAK	2021		2022		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
Udaltzaingoa	23.915.428,00	%9,96	24.044.547,00	%9,39	129.119,00	%0,54
Mugikortasun bertikala	580.000,00	%0,24	935.123,00	%0,36	355.123,00	%61,23
Hiri mugikortasuna	9.331.688,00	%3,88	10.247.997,00	%4,00	916.309,00	%9,82
Hirigintza	11.302.406,00	%4,70	9.155.424,00	%3,57	-2.146.982,00	-%19,00
Donostiako etxegintza enpresa erakunde publikoa	14.955.544,00	%6,23	15.718.000,00	%6,14	762.456,00	%5,10
Bide publikoak	1.837.919,00	%0,77	4.212.209,00	%1,64	2.374.290,00	%129,18
Herri-argiteria	3.720.077,00	%1,55	4.217.317,00	%1,65	497.240,00	%13,37
Parke eta lorategiak	6.607.143,00	%2,75	7.757.158,00	%3,03	1.150.015,00	%17,41
Hondartzak	2.931.830,00	%1,22	3.101.096,00	%1,21	169.266,00	%5,77
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.245.639,00	%1,77	4.632.680,00	%1,81	387.041,00	%9,12
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	850.160,00	%0,35	799.484,00	%0,31	-50.676,00	-%5,96
Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza	1.802.014,00	%0,75	1.906.520,00	%0,74	104.506,00	%5,80
Donostia Lagunkoia	75.000,00	%0,03	75.000,00	%0,03	0,00	%0,00
Apartamentu tutelatuak	1.740.417,00	%0,72	1.917.247,00	%0,75	176.830,00	%10,16
Gizarte abegi etxea	1.249.364,00	%0,52	1.378.956,00	%0,54	129.592,00	%10,37
Gizareratzea	4.805.428,00	%2,00	5.105.073,00	%1,99	299.645,00	%6,24
Adin txikikoen prebentzioa eta familia	3.092.655,00	%1,29	3.153.476,00	%1,23	60.821,00	%1,97
Adineko pertsonen sustapena	357.180,00	%0,15	491.283,00	%0,19	134.103,00	%37,54
Zaharren egoitzak	908.471,00	%0,38	918.755,00	%0,36	10.284,00	%1,13
Etxez etxeko laguntza	9.614.992,00	%4,00	9.214.984,00	%3,60	-400.008,00	-%4,16
Gizarte larrialdietarako laguntzak	2.638.355,00	%1,10	2.693.355,00	%1,05	55.000,00	%2,08
Berdintasuna	1.087.353,00	%0,45	1.079.110,00	%0,42	-8.243,00	-%0,76
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	7.219.681,00	%3,01	7.459.907,00	%2,91	240.226,00	%3,33
Udalaren musika eta dantza eskola	4.907.606,00	%2,04	5.068.909,00	%1,98	161.303,00	%3,29
Heziketarako programak	244.320,00	%0,10	245.316,00	%0,10	996,00	%0,41
Giza eskubideak	890.503,00	%0,37	824.380,00	%0,32	-66.123,00	-%7,43
Kultur aniztasuna	446.541,00	%0,19	401.081,00	%0,16	-45.460,00	-%10,18
Donostia Kultura	26.608.921,00	%11,08	30.634.202,00	%11,96	4.025.281,00	%15,13
Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	156.323,00	%0,07	159.738,00	%0,06	3.415,00	%2,18
Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	647.205,00	%0,27	726.474,00	%0,28	79.269,00	%12,25
Gazteria	2.296.281,00	%0,96	2.388.604,00	%0,93	92.323,00	%4,02
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	4.272.605,00	%1,78	4.436.149,00	%1,73	163.544,00	%3,83
Donostia Kirola (kirol ekintzak)	2.977.069,00	%1,24	3.030.079,00	%1,18	53.010,00	%1,78
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	10.370.602,00	%4,32	11.305.522,00	%4,41	934.920,00	%9,02
Donostia Turismo	3.326.601,00	%1,38	3.827.986,00	%1,49	501.385,00	%15,07
Fomento S.A.	15.536.460,00	%6,47	15.329.610,00	%5,98	-206.850,00	-%1,33
Dbus	44.849.995,00	%18,67	45.301.713,00	%17,68	451.718,00	%1,01
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.429.847,00	%0,60	1.575.047,00	%0,61	145.200,00	%10,15
Proiektu eta obrak	5.356.651,00	%2,23	7.818.831,00	%3,05	2.462.180,00	%45,96
Herritarren parte hartzea	1.042.410,00	%0,43	2.912.684,00	%1,14	1.870.274,00	%179,42
<b>GUZTIRA</b>	<b>240.228.684,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>256.201.026,00</b>	<b>%100,00</b>	<b>15.972.342,00</b>	<b>%6,65</b>
<b>AURREKONTU OSOAREN GAINEKO %</b>	<b>%60,06</b>		<b>%60,30</b>			



Udal aurrekontua baino IGOERA handiagoa	Udal aurrekontua baino IGOERA txikiagoa.
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Mugikortasun bertikala (% +61,23)</li> <li>2. Hiri mugikortasuna (% +9,82)</li> <li>3. Bide publikoak (% +129,18)</li> <li>4. Argiteria publikoa (% +13,37)</li> <li>5. Parkeak eta lorategiak (% +17,41)</li> <li>6. Gizarte zerbitzuetako zentroak (% +9,12)</li> <li>7. Tutoretzapeko apartamentuak (% +10,16)</li> <li>8. Gizarte harrerako zentroa (% +10,37)</li> <li>9. Gizarteratzea (% +6,24)</li> <li>10. Adin nagusiko pertsonen sustapena (% +37,54)</li> <li>11. Donostia Kultura (% +15,13)</li> <li>12. Udalaren Musika eta Dantza eskola (Txistulariak) (% +12,25)</li> <li>13. Kirol instalazioak (Donostia Kirola) (% +9,02)</li> <li>14. Donostia Turismoa (% +15,07)</li> <li>15. Mantenua eta hiri zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa (% +10,15)</li> <li>16. Proiektu eta obrak (% +45,96)</li> <li>17. Herritarren partaidetza (% +179,42)</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Udaltzaingoa (% +0,54)</li> <li>2. Etxebizitza (% +5,10)</li> <li>3. Hondartzak (% +5,77)</li> <li>4. Garapenerako lankidetzak eta hezkuntza (% +5,80)</li> <li>5. Haur eta familien prebentzioa (% +1,97)</li> <li>6. Adin nagusiko pertsonen egoitza (% +1,13)</li> <li>7. Gizarte larrialdiko laguntzak (% +2,08)</li> <li>8. Ikastetxeen funtzionamendua (% +3,33)</li> <li>9. Udalaren Musika eta Dantza eskola (% +3,29)</li> <li>10. Heziketa programak (% +0,41)</li> <li>11. Udalaren Musika eta Dantza eskola (liburutegia) (% +2,18)</li> <li>12. Gazteria (% +4,02)</li> <li>13. Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola) (% +3,83)</li> <li>14. Donostia Kirola (kirol jarduerak) (% +1,78)</li> <li>15. Dbus (% +1,01)</li> </ol>
JAITSIERA	Zenbatekoa MANTENTZEN da.
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hirigintza (% -19,00)</li> <li>2. Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa (% - 5,96)</li> <li>3. Etxez etxeko laguntza (% -4,16)</li> <li>4. Berdintasuna (% -0,76)</li> <li>5. Giza eskubideak (% -7,43)</li> <li>6. Kultura aniztasuna (% -10,18)</li> <li>7. Sustapena, S.A. (% -1,33)</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Donostia Lagunkoia</li> </ol>

**Oharra:** Ehunekoak erreferentzia egiten dion administrazio-unitatearen guztizko gastuaren igoerari, jaitsierari edo mantentzeari buruzkoak dira.

## 5.1. OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK

Gastuen esparru honetan **9 programa aztertu dira**, zehazki hauek:

- Udaltzaingoa:
- Mugikortasun bertikala.
- Hiri mugikortasuna.
- Hirigintza.
- Etxebizitza - Etxebizitzaren enpresa erakunde publikoa.
- Bide publikoak.
- Argiteria publikoa.
- Parkeak eta lorategiak.
- Hondartzak.

### 5.1.1. UDALTZAINGOA

#### • PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA

**Udaltzaingoa**ren programa *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **24.044.547,00 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 5,66**. 2021ean haren zuzkidura 23.915.428 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 5,98. Beraz, programa hori **129.119,00 eurotan areagotu da (% +0,54)**

UDALTZAINGOA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	22.400.452,00	22.446.860,00	46.408,00	%0,21
2. kapitulua	1.398.008,00	1.504.687,00	106.679,00	%7,63
6. kapitulua	116.968,00	93.000,00	-23.968,00	-%20,49
<b>TOTAL</b>	<b>23.915.428,00</b>	<b>24.044.547,00</b>	<b>129.119,00</b>	<b>%0,54</b>

Bertako **lehen kapituluak**, langileen gastuak izenekoak, agertzen du oraindik programaren barnean gastuari dagokionez proportzio handiena. **Generoaren ikuspegitik interes gehien duen kapitulua da**, izan ere, programa horren barneko langileek **ematen diete arreta eraso matxistak pairatzen dituztenei**.

Beste bi kapituluei dagokienez:

- **2. kapitulua 106.679 euro** (% +7,63) **areagotu da** 2021. urtearekin alderatuz, batez ere, aldagelako erosketen, berrikuntzaren (+60.000€) eta beste hornidura (+40.000€) batzuen ondorioz, nagusiki, balen aurkako txalekoak erosteko.
- **6. kapitulan -23.968 euroko jaitsiera izan da**, izan ere, 2021eko aurrekontuan % 79,3ko igoera ekarri zuten inbertsioak egin ziren, aurten amaitu direnak. Ez dugu partida hori nora bideratu den jakiteko informazio zehatzik.

• **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2021. urtean bezalaxe, 3.000,00 euroko **zuzkidura mantentzen da** “226.99.04 Berdintasun Plana” izeneko partidan, indarkeria matxista artatzeko **Udaltzaingoko agenteen** prestakuntzara bideratua.

UDALTZAINGOA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	3.000,00	3.000,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.000,00</b>	<b>3.000,00</b>	<b>0,00</b>	<b>%0,00</b>

Gaur egun, Udaltzaingoan 370 agente daude, 72 emakume (% 19,5) eta 256 gizon (% 80,5).

2021ean 18 gizon eta 4 emakumek parte hartu dute indarkeria matxisten arretarako 15 orduko ikastaro batean. Horrez gain, agente batek HAEE erakundeak indarkeria matxisten arretarako eskainitako 25 orduko ikastaro batean parte hartu du. Indarkeria bikarioari buruzko jardunaldi batean agenteen lantaldeko bederatzi emakumek parte hartu zuten.

Halaber, Udaltzaingoak puntu kritikoen jarraipena egiteko sailarteko udal taldean parte hartzen jarraitzen du.

• **GOMENDIOAK**

• Prestakuntzako aurrekontua **indarkeria matxistako kasuetan arreta ematean espezializatutako agente talde bat sortzeko** prozesurako bideratzea.

• **Puntu kritikoei** buruzko sailarteko udal taldean **partaidetza mantentzea**.

5.1.2. MUGIKORTASUN BERTIKALA

• **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Mugikortasun Bertikala** programa *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **935,123,00 eurokoa** da, hots, **udal aurrekontuen % 0,22**. 2021ean haren zuzkidura 580.000,00 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 0,14. Beraz, **igoera, adierazgarria izan da, +355.123,00 eurokoa (% +61,23)**.

MUGIKORTASUN BERTIKALA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
6. kapitulua	580.000,00	935.123,00	355.123,00	%61,23
<b>TOTAL</b>	<b>580.000,00</b>	<b>935.123,00</b>	<b>355.123,00</b>	<b>%61,23</b>

Zuzkidura guztia 6. kapitulura bideratzen da, *601.01 Igogailuak*, izeneko partidara, hiriaren barnean irisgarritasuna hobetzea ahalbidetzeko igogailuak egitera bideratua osorik.

● **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

**Programa honetan ez da gastu eraldatzailearen partida zehatzik identifikatzen.** Dena den, programa honetan egindako inbertsioak **mugikortasun iraunkorra ahalbidetu eta irisgarritasuna hobetzera** bideratzen dira osorik. Eta bi helburu horiek **garrantzitsuak dira generoaren ikuspegitik**, izan ere, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna hobetzean eragina dute.

● **GOMENDIOAK**

- Mugikortasun iraunkorra eta irisgarritasuna hobetzera bideratutako **politikak mantentzea**.
- Egiteko **inbertsioen diseinua eta egikaritzea** kontratatzeko pleguetan **berdintasunerako klausulak sartzea** balioestea.
- **Puntu kritiko**en gaineko sailarteko **Taldeak egindako gomendioak** kontuan izatea egiteko inbertsioak lehenesteko garaian.

**5.1.3. HIRI MUGIKORTASUNA**

● **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Hiri Mugikortasuna** programa *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **10.247.997,00 eurokoa** da, hots, **udal aurrekontuen % 2,41**. 2021ean haren zuzkidura 9.331.688,00 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 2,33. Horrenbestez, programa hori **+916.309,00 eurotan areagotu da (% +9,82)**.

HIRI MUGIKORTASUNA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	5.974.770,00	6.235.828,00	261.058,00	%4,37
2. kapitulua	2.155.953,00	2.321.773,00	165.820,00	%7,69
4. kapitulua	9.240,00	9.240,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	1.191.725,00	1.681.156,00	489.431,00	%41,07
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.331.688,00</b>	<b>10.247.997,00</b>	<b>916.309,00</b>	<b>%9,82</b>

Kapitulu guztietan zenbatekoak gora egin du, zenbatekoa mantendu duen 4. kapituluan izan ezik, eta 6. kapituluan izan da igoera handiena (% +41,07)

**2. kapituluan** garabien kontratuan oinarritzen da igoera, izan ere, balizko igoera bat jaso da lizitazio berri bati lotua baitago. Eta 1. kapituluan izandako igoera, funtsean, udal langileen ordainsarien **igoera orokorraren (% 2koa)** ondorio da.

Hauk dira 2022. urterako programa honetan **aurreikusten diren inbertsioak, 6. kapituluan**:

HIRI-MUGIKORTASUNA	1.681.156,00
601.01 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta urbanizazioa	100.000,00
601.02 Bidegorriak, azpiegitura eta urbanizazioa	248.757,00
601.04 Marrutxipiko lotura-proiektua GI-20 errepidean (Donostiako saihesbidea)	489.399,00
622.01 Zerbitzuentzako eraikinak eta bestelako eraikuntzak	100.000,00
623.02 Zerbitzuentzako instalazioak	320.000,00
624.01 Zerbitzuentzako garraio-materiala	423.000,00

**Generoaren ikuspuntutik 601.02 Bidegorria, urbanizazioa eta azpiegitura** izeneko partidan sartzen den inbertsioa azpimarratu behar dugu.

*Udal aurrekontuen analisiari buruzko 2020ko txostenean* bidegorriak diseinatzean kontuan izateko alderdiei buruz aipatzen zena berreskuratuko dugu eta inbertsio hori garatzeko orduan duen garrantzia errepikatzen dugu:

*“Espaloi gainean eraikitako bidegorriek espazioa eta segurtasuna kentzen diete oinezkoei, bereziki, zaurgarrienei, hots, adin nagusiko pertsoneri edota haurrei, eta oinezko eta txirrindularien arteko gatazkak ekartzen dituzte.*

*Motordun trafikotik hurbil dauden baina gehiegizko babesik gabeak diren bidegorriak ez dira horren erakargarriak emakumeentzat eta ez dira horren seguruak txirrindularientzat orokorrean. Beraz, bidegorri seguruetan inbertitzea komeni da, motordun trafikoaren abiadura murrizteko lagungarri direnak eta oinezkoen igarobideak ahalik eta gutxien oztapatzeko.*

*Aldi berean, interesgarria izango litzateke auto-gidariei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea autoen eta txirrinduen arteko bizikidetzaren hobea izan dadin, eta emakumeak txirrinduak erabiltzera adoretzen jarraitzea, eta bereziki 60 urtetik gorakoak, ikastaroen eta txirrindu elektrikoaren alokairurako sistema publikoko erakustaldien bidez”.*

#### ● **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

**Programa honetan ez da gastu eraldatzailearen partida zehatzik identifikatzen.** Dena den, programa honetan egindako inbertsioak **mugikortasun iraunkorra ahalbidetu eta irisgarritasuna hobetzera** bideratzen dira osorik. Eta bi helburu horiek **garrantzitsuak dira generoaren ikuspegitik**, izan ere, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna hobetzean eragina dute.

Gainera, azken urteetan aztertutako datuek berresten dutenez, garraio mota ezberdinak erabiltzen dira sexuaren arabera. Hori dela eta, garraio publikoaren sarea hobetzera bideratutako gastuak onura handiagoa egiten die emakumei eta horiek zaintzen dituzten pertsoneri: adin txikikoak, adin nagusikoak eta mendekotasun maila ezberdinak dituzten pertsonak. Aitzitik, aparkalekuetan edo ibilgailu partikularraren erabilera bultzatzeko proiektuetan egiten diren inbertsioek gizonei egiten die onura gehien.

Hori dela eta, **oso garrantzitsua da** programan honetan barneratzen diren **mugikortasun-ereduetan eta inbertsioetan genero-ikuspegia txertatzea.**

• **GOMENDIOAK**

2020an egindako gomendioa mantentzen da, genero-ikuspegi batetik abiatuz mugikortasun-programak garatzeko **partida espezifiko** bat barneratzearena.

601.02 **Bidegorria, urbanizazioa eta azpiegitura** partidan aurreikusitako inbertsioetako baten diseinuan eta egikaritzean genero-ikuspegia txertatzeko **proba pilotu** bat egitea gomendatzen da.

**Aurrekontu-zuzkidura** bat aurreikustea **puntu kritiko**en gaineko sailarteko **Taldeak** sortutako gomendioak gauzatzeko.

5.1.4. **HIRIGINTZA**

• **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Hirigintza** programa *Etxebizitza eta hirigintza* gastuen politikan sartuta dago. 2022. urteari begira haren aurrekontu-zuzkidura **9.155.424,00 eurokoa**, da, hots, **udal aurrekontuen % 2,16**. 2021ean haren zuzkidura handiagoa izan zen, 11.302.406,00 eurokoa, hots, aurrekontuen % 2,83. Horrenbestez, programa hori **-2.146.982,00 eurotan murriztu da (% -19,00)**.

HIRIGINTZA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.237.452,00	4.273.543,00	36.091,00	%0,85
2. kapitulua	266.357,00	269.133,00	2.776,00	%1,04
6. kapitulua	6.798.597,00	3.012.476,00	<b>-3.786.121,00</b>	<b>-%55,69</b>
7. kapitulua	0,00	1.600.272,00	1.600.272,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.302.406,00</b>	<b>9.155.424,00</b>	<b>-2.146.982,00</b>	<b>-%19,00</b>

Zuzkiduran dagoen aldea, funtsean, **6. kapituluan dago (% -55,69)**, 2022. Urterako inbertsioen zenbatekoa murriztu egin baita. Bestalde, **7. kapituluaren barnean partida berri** bat sortu da (781,01), 1.600.272,00 eurokoa, obra ezberdinen Ituntze Batzarren ekarpenetara bideratua. Apostolutza, Illarra, Infernua eta Aldakoenea.

Soilik bi partidatan zehazten da 6. kapituluan barneratzen diren inbertsioen helburua, *601.01 Loiolako Erriberen urbanizazioa*, eta *601.02* Lorategi hiriaren urbanizazioa izenekoetan, **bi kasuetan genero-ikuspegia gainera daiteke beren diseinuan**.

<b>HIRIGINTZA</b>	<b>3.012.476,00</b>
600.01 Erabilera orokorrerako inbertsioa lurretan	1.000.000,00
601.01 Loiolako Erriberatan urbanizazioa	459.000,00
601.02 Lorategi Hiriko urbanizazioa	678.476,00
643.01 Ikerketa, azterketak eta proiektuak	875.000,00

● **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Aurten **25.000 euroko aurrekontu-zuzkidura berri bat sartu da programan**, Hirigintzak egin edo sustatutako proiektu eta planetan **generoaren inpaktuaren analisiari buruzko txostenak** egitearen kostua ordaintzera bideratua. Ekarpene hori bat dator 2020ko eta 2021eko aurrekontuetako txostenetan egindako gomendioekin.

HIRIGINTZA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	0,00	25.000,00	25.000,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>25.000,00</b>	<b>25.000,00</b>	

● **GOMENDIOAK**

- Esparruak bultzatutako proiektu eta inbertsioetan **genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza-politika bat mantendu eta bultzatzea**. Eta **inpaktua neurtzeko txostenak** egitean.
- Hirigintzako plan eta proiektuetan **genero-ikuspegia txertatzeko prozesuen balioespen bat** egitea.
- **Lorategi Hiriaren inbertsioan genero-ikuspegia txertatzea**, horri buruz txostenean egindako gomendioei jarraiki. *Loiolako Erriberaren urbanizazioaren diseinuan genero-ikuspegia txertatzea*.

**5.1.5. ETXEBIZITZAKO ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA - DONOSTIAKO ETXEGINTZA**

● **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Donostiako Etxegintza** enpresa publikoa Etxebizitza eta hirigintza gastuen politikari dagokio. 2022an haren aurrekontua **%+5,10 areagotu da**, guztira aurrekontua **15.718.000,00 eurokoa** delarik, hots, **udal aurrekontuen % 3,70**. 2021ean haren zuzkidura txikiagoa izan zen, 14.955.544,00 eurokoa, hots, aurrekontuen % 3,74.

ETXEGINTZA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.866.000,00	1.965.000,00	99.000,00	%5,31
2. kapitulua	3.441.000,00	3.526.000,00	85.000,00	%2,47
3. kapitulua	835.000,00	613.000,00	-222.000,00	-%26,59
6. kapitulua	3.913.616,00	4.390.000,00	476.384,00	%12,17
9. kapitulua	4.899.928,00	5.224.000,00	324.072,00	%6,61
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.955.544,00</b>	<b>15.718.000,00</b>	<b>762.456,00</b>	<b>%5,10</b>

Udalaren ekarpena 2022an 5.925.000 eurokoa da, 2.790.000 euro gastu arruntetan, eta 3.135.000 euro kapital-gastuan. 2021ean ekarpen hori txikiagoa izan zen, 4.877.276,00 eurokoa; 3.013.660,00 euro gastu arruntetan eta 1.863.616,00 kapital-gastuan.

• **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailearen **partida espezifikorik ez da identifikatzen**.

Haatik, etxebizitzaren **esleipendunak hautatzeko prozedurako** zenbait irizpide balioan ipini behar dira.

Etxegintzak baremazio-sistema batean oinarritutako esleipen-sistema bat du abian, kolektibo jakin batzuetarako ekintza positiboa lortzeko asmoz. Hura **Gizarte Zerbitzuekin batera** zehaztu da.

Baremazio-sisteman, hasiera batean, egoera hauek jasotzen dira ekintza positiboko kupo gisa:

- Familia gurasobakar amadun /aitadunak, eta ardurapean seme-alabak dituzten pertsona dibortziatuak.
  - Mugikortasun urria.
  - Adimen desgaitua edo gaixotasun mentala.
  - Genero-indarkeria.
  - Familia ugariak, familia-kargak.
  - Gizarte-bazterkeria eta egoitza egiaztatua.
  - 35 urtetik beherako pertsonak (emantzipazioa ahalbidetzea).

Behin ekintzako kupoak osatuta, puntuak esleitzen dira bizikidetzaren unitatearen ezaugarri sozioekonomikoen arabera, bereziki diru-sarrerei eta unitateko kide kopuruari begira.

**Etxebizitzak lagatzea bazterkeria arriskuan diren pertsonentzat.** Ekintza positiboko kupoez gain, Etxegintzak bizitegi erako baliabideak lagatzen dizkie gizarte erakundeei eta Gizarte Zerbitzuei gizarte larrialdi bereziko egoerak artatzeko, eta asko dira egoera horretan dauden etxebizitzak Era berean, Gizarte Ekintzak programa horiei lotutako etxebizitza jakin batzuetarako pertsona erabiltzaileak izendatzen ditu.

**Zuzkidura-bizitoki programak:** Etxegintzak 524 zuzkidura-bizitoki ditu adin nagusiko pertsonari edo 35 urtetik beherako gazteei zuzenduta, premia bereziko kolektiboak direla kontuan izanik.



• **GOMENDIOAK**

Etxebizitzako programaren onuradun diren pertsonen **datu banakatuen bilketa eta analisis** sakontzea berdintasun sailarekin lankidetzan.

5.1.6. BIDE PUBLIKOAK

• **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Bide Publikoak** aurrekontu-programa *Etxebizitza eta hirigintza* gastuen politikan sartuta dago. Programa horretan aurrekontu-zuzkidurak **modu adierazgarrian egin du gora (% +129,18)**, eta aurrekontua **4.212.209,00 eurokoa** da guztira, hots, **udal aurrekontuen % 0,99%**. 2021ean haren zuzkidura txikiagoa izan zen, 1.837.919,00 eurokoa, hots, aurrekontuen % 0,46.

BIDE PUBLIKOAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	451.502,00	669.989,00	218.487,00	%48,39
2. kapitulua	1.010.497,00	1.102.220,00	91.723,00	%9,08
6. kapitulua	375.920,00	2.440.000,00	2.064.080,00	%549,07
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.837.919,00</b>	<b>4.212.209,00</b>	<b>2.374.290,00</b>	<b>%129,18</b>

Igoera handiena **1. kapituluan** gertatu da, % +48,38 areagotuta. Igoera ez da langile kopurua areagotzearen ondorioz, baizik eta **barnetik zuzendaritza bereko programen artean** izandako **aldaketaren** eta balio anitzeko **lanpostuen berregituraketan** ondorioz.

**6. kapituluan izandako igoera (% +549,07)** programa honetan 2022. urteari begira inbertsioetan izandako igoera adierazgarriaren ondorio da, jarraian zehazten den eran:

Bide publikoak		2.440.000,00
623.05	Zerbitzuentzako makineria, instalazioak eta tresneria	130.000,00
601.08	Bera Berako paretan lanak	105.000,00
601.06	Igeldoko espaloia herria eta kanpingaren artean	50.000,00
601.05	Renovación de la barandilla del paseo Salamanca	800.000,00
601.04	Mendi-mazelak egonkortzea	500.000,00
601.03	Irigarritasuna eta espazioa publikoak	375.000,00
601.02	Haur parkeak	300.000,00
601.01	Hiri-altzariak eta erabilera orokorreko urbanizazioko elementuak	180.000,00

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailearen **partida espezifikorik ez da identifikatzen.**

**Generoaren ikuspegitik**, eta egiteko inbertsioen xehetasun gehiago izan gabe, garrantzitsuztat jotzen ditugu **601.03 Irisgarritasuna eta espazio publikoak (puntu kritikoak)** eta **601.02 Haurren parkeak** izeneko partidak, diseinuan aldaketak egitera bideratzen direnean.

- **GOMENDIOAK**

• **Haurren parkeen inbertsioen diseinuan genero-ikuspegia txertatzea.**

• **Aurrekontu-zuzkidura** bat aurreikustea **puntu kritikoaren gaineko sailarteko Taldeak** sortutako gomendioak gauzatzeko.

### 5.1.7. ARGITERIA PUBLIKOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Argiteria publikoa** aurrekontu-programa *Komunitatearen ongizatea* gastuen politikan sartuta dago. 2022. urteari begira haren aurrekontu-zuzkidura **4.217.317,00 eurokoa** da, hots, **udal aurrekontuen % 0,99**. 2021ean haren zuzkidura txikiagoa izan zen, 3.720.077,00 eurokoa, hots, aurrekontuen % 0,93. Beraz, **igoera +497.240,00 eurokoa (% +13,37) izan da.**

HERRI ARGITERIA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	59.197,00	3.861,00	-55.336,00	-%93,48
2. kapitulua	3.660.880,00	3.813.456,00	152.576,00	%4,17
6. kapitulua	0,00	400.000,00	400.000,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.720.077,00</b>	<b>4.217.317,00</b>	<b>497.240,00</b>	<b>%13,37</b>

1. kapituluak behera egin du nabarmen (% -93,48). Jaitsiera hori **barnetik zuzendaritza bereko programen artean izandako aldaketaren** ondorio da, **zerbitzu horien arteko balio-aniztasuna** bilatuz eta baliabide bakar bat ere kaltetu gabe. Zuzendaritza horretako langileek, orokorrean, berdinak izaten jarraitzen dute, baina programen artean modu ezberdinean egotzita (**Bide Publikoak**)

**6. kapitulan**, 2021. urtearekin alderatuz berritasun modura, *601.01 Azpiegitura eta urbanizazioa* partida sortu da, erabilera orokorrekoa (400.000.00 euro). Ez dago hari buruzko xehetasunik.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailearen **partida espezifikorik ez da identifikatzen**.

Garrantzitsua da kontuan izatea, hala badagokio, energiaren efizientzian egiten diren aldaketetan genero-ikuspegia sartu behar dela, izan ere, argiztapenik ezak edo urritasunak segurtasunik gabeko egoerak sor ditzake, orokorrean, emakumeengan eragin zuzenagoa dutenak.

- **GOMENDIOAK**

Energiaren efizientziarako neurriek argiztapen urriagoaren ondorioz **segurtasunik gabeko egoerak sortu ez ditzatela** begiratzea (**genero-ikuspegia txertatzea inbertsio horietan**).

### 5.1.8. PARKEAK ETA LORATEGIAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Parkeak eta lorategiak** aurrekontu-programa *Ingurumena* gastuen politikan sartuta dago. 2022. urteari begira haren aurrekontu-zuzkidura **7.757.158,00 eurokoa** da, hots, **udal aurrekontuen % 1,83**. 2021ean haren zuzkidura txikiagoa izan zen, 6.607.143,0 eurokoa, hots, aurrekontuen % 1,65. Horrenbestez, programa **1.150.015,00 eurotan areagotu da (% +17,41)**.

PARKE ETA LORATEGIA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	548.482,00	625.671,00	77.189,00	%14,07
2. kapitulua	5.939.661,00	5.876.487,00	-63.174,00	-%1,06
6. kapitulua	119.000,00	1.255.000,00	1.136.000,00	%954,62
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.607.143,00</b>	<b>7.757.158,00</b>	<b>1.150.015,00</b>	<b>%17,41</b>

**1. kapituluko** igoera mantenu eta hiri zerbitzuen Zuzendaritzaren organigrama berrantolatu eta parke eta lorategietako teknikariaren posturako pertsona bat kontratatu ostean zerbitzua indartzearen ondorio da.

**6. kapitulua da** 2021. Urtearekin alderatuta **gehien igo dena (% +954,62)**. Hau da egiteko inbertsioen xehetasuna:

Parke eta lorategiak		1.255.000,00
643.01	Ikerketa, azterketak eta proiektuak	90.000,00
627.01	Putzuetako mintegietako jarduketak	320.000,00
601.02	Parketako bideak hobetu	70.000,00
601.01	Jarduerak zuzentzen, txorkoetan eta berdeguneetan	775.000,00

601.02 Parkeetako xendrak hobetzea eta 601.01 Esku-hartzeak zuhaizti, txorko eta berdegunetan izeneko partidak **garrantzitsuak dira genero-ikuspegiari dagokionez**, izan ere, **hiriaren erabilera komunitarioa** ahalbidetzen dute. Ez dago horiei buruzko datu espezifikorik.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailearen **partida espezifikorik ez da identifikatzen**.

Gure ustez, **garrantzitsua da genero-ikuspegia berdeguneak antolatzeko edota xendrak hobetzeko planetan sartzea**. Erabilera komunitarioa ahalbidetzen du, eta baita segurtasuna ere.

- **GOMENDIOAK**

**Genero-ikuspegia txertatzea berdeguneak antolatu eta xendrak hobetzeko planen diseinu eta egikaritzean.**

### 5.1.9. HONDARTZAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Hondartzak** aurrekontu-programa *Ingurumena* gastuen politikan sartuta dago. 2022. urteari begira haren aurrekontu-zuzkidura **3.101.096,00 eurokoa** da, hots, **udal aurrekontuen % 0,73**. 2021ean haren zuzkidura txikiagoa izan zen, 2.931.830,00 eurokoa, hots, aurrekontuen % 0,73. Horrenbestez, programa **169.266 eurotan areagotu da (% +5,77)**.

HONDARTZAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	127.224,00	109.489,00	-17.735,00	-%13,94
2. kapitulua	2.804.606,00	2.879.007,00	74.401,00	%2,65
6. kapitulua	0,00	112.600,00	112.600,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.931.830,00</b>	<b>3.101.096,00</b>	<b>169.266,00</b>	<b>%5,77</b>

**1. kapitulua** -17.735 eurotan murriztu da (% -13.94). Jaitsiera hori **barnetik zuzendaritza bereko programen artean izandako aldaketaren** ondorio da, **zerbitzu horien arteko balio-aniztasuna** bilatuz eta baliabide bakar bat ere kaltetu gabe. Zuzendaritza horretako langileek, orokorrean, berdinak izaten jarraitzen dute, baina programen artean modu ezberdinean egotzita.

**6. kapituluan**, 2021. urtearekin alderatuz berritasun modura, bi inbertsio-partida berri sortu dira:

<b>Hondartzak</b>		<b>112.600,00</b>
623.05	Zerbitzuentzako makineria, instalazioak eta tresneria	20.000,00
622.02	Bestelako eraikin eta eraikuntzak	92.600,00

Ez dugu inbertsioen xedearen xehetasun espezifikoa eskuratzeko aukerarik izan.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailearen **partida espezifikorik ez da identifikatzen.**

- **GOMENDIOAK**

Kabinetako, aulkien alokairurako, eguzkitako edota garbiketarako langileek **indarkeria matxistaren prebentzio arloan** duten prestakuntza maila zehatza balioestea.

## 5.2. GIZARTE BABES ETA SUSTAPENERAKO ESKU-HARTZEAK

Gastuen esparru honetan **13 programa aztertu dira**, zehazki hauek:

- Berdintasuna.
- Garapenerako lankidetzak eta hezkuntza.
- Donostia Lagunkoia.

### GIZARTE EKINTZAKO ZUZENDARITZA

- Gizarte Zerbitzuetako zentroak.
- Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa.
- Tutoretzapeko apartamentuak.
- Gizarte harrerako zentroa.
- Gizarteratzea.
- Haur eta familien prebentzioa.
- Adin nagusiko pertsonen sustapena.
- Adin nagusiko pertsonen egoitza.
- Etxez etxeko laguntza.
- Gizarte larrialdiko laguntzak.

### 5.2.1. BERDINTASUNA

#### ● PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA

**Berdintasun** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **1.079.110,00 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 0,25**. 2021ean, zuzkidura apur bat handiagoa izan zen, 1.087.353 eurokoa, aurrekontuen ganean portzentaje handiagoa suposatzen zuena, aurrekontuen % 0,27 batekin. Beraz, berdintasun programa **-8.243,00 eurotan murriztu da (% -0,76)**

BERDINTASUNA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	524.535,00	460.207,00	-64.328,00	-%12,26
2. kapitulua	354.818,00	296.703,00	-58.115,00	-%16,38
4. kapitulua	128.000,00	192.200,00	64.200,00	%50,16
6. kapitulua	80.000,00	130.000,00	50.000,00	%62,50
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.087.353,00</b>	<b>1.079.110,00</b>	<b>-8.243,00</b>	<b>-%0,76</b>

**1. kapituluan** izandako jaitsiera, funtsean, Gizarte Sustapena eta Hezkuntza zuzendaritzako langile batek **erretiroa** hartzearen ondorio izan da, berdintasun-programara atxikia zegoena aurrekontuari dagokionez. Horri, **Emakumeen Etxearen** arretarako langile batek egiten zuen **lanaldi erdia kendu izana** gaineratu behar zaio.

**2. kapitulari** dagokionez, zenbatekoaren jaitsiera, funtsean, *Familia gurasobakar amadunen kontziliazio-umezain programaren (227.99.01)* gastuen sailkapena aldatzearen ondorio da. 2022ko aurrekontuan gastu hori 4. kapitulu dago, *Familia gurasobakar amadunen kontziliazio-umezain programarako ezohiko diru-laguntza (481.03)* izeneko partidan, 2021eko zenbateko berarekin (64.200 euro). Beraz, programari dagokionez, oro har, ez da aurrekontua murriztearen arrazoia. Kontzeptu hori ateratzen baldin badugu **2. kapitulutik 2021. urtearekiko alderaketan, hura % 2an** areagotu da.

**2. kapituluko partida adierazgarriena**, zenbatekoari (**kapitulu osoaren % 81,4**) zein **berdintasuneko udal politika bultzatzera** bideratuta sustatzen dituen jardunei begira, **226.99** partida da. Honatx partida horren xehetasuna:

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
<b>226.99</b>	<b>Bestelako gastuak</b>	<b>241.765,00</b>
226.99.01	Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak	80.000,00
226.99.02	Ikerketa lanak eta prestakuntza	3.000,00
226.99.03	Emakumeen ahalduntzea	111.265,00
226.99.05	Erantzunkidetasuna eta zaintzak lantzeko ekintzak	6.000,00
226.99.07	III. Berdintasun Plana: inplementatu eta sistematizatzea	15.000,00
226.99.08	Pobreziaren eta prekarietatearen feminizazioaren aurkako estrategia	26.500,00

Partida hori % +7 igo da 2021. urtearekin alderatuz (+17.085 euro). **Igoera hori 3 partidatan nabari da: 226.99.01 partida, Indarkeria sexistaren kontrako ekintzak** (+3.000 euro), kasu honetan 2020an zegoen zuzkidura berreskuratuz, **226.99.03 partida, Emakumeen ahalduntzea** (+10.585 euro), eta **226.99.05 partida, Erantzunkidetasuna eta zaintzak garatzeko ekintzak** (+3.500 euro).

Bestalde, kapitulu horren barnean, **Ikerketa eta lan teknikoak (226.09)** izeneko partidaren zuzkidura - **11.000 euro murriztu da**, hala 2021eko 16.000,00 eurotik 2022ko 6.000 eurora igaroz. Zuzkidura hori kanpoko aholkularitza teknikora bideratzen da, generoaren inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioak egiteko, eta 2022ko aurreikuspena egokitu da.

**4. kapitulari** dagokionez, zenbatekoak gora egin du, arestian aipatutako *Familia gurasobakar amadunen kontziliazio-umezain programaren* gastua berriro sailkatzearen ondorioz. Bestalde, aurreko urteko partidak zenbatekoari nahiz kontzeptuari dagokionez, mantendu egiten dira, hots, berdintasuna sustatzen duten emakumeen elkarteei eta elkarte mistoei emateko diru-laguntzak (82.000,00€) eta Emakumeen Etxea mantentzeko hitzarmena (46.000,00€).

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
481.03	Guraso bakarreko familien kontziliazio-kanguraje programaren aparteko dirulaguntza	64.200,00
481.01	Irabazi asmorik gabeko erakundeetarako dirulaguntzak	82.000,00
481.02	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei aparteko dirulaguntzak	46.000,00

Azkenik, **6. kapitulua** aurten +50.000 eurotan areagotu da *Puntu kritikoak hobetzea* izeneko partidan (601.01). Emakumeen Etxea mantentzera bideratutako partida eta zenbatekoa mantendu egiten dira.

BERDINTASUNA		130.000,00
622.01	Zerbitzuentzako eraikinak eta bestelako eraikuntzak	20.000,00
601.01	Puntu kritikoak hobetu	110.000,00

#### ● **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

**Programa honetara atxikitako zenbateko osoa gastu eraldatzailetzat hartzen da**, hori baita helburua eta bere izatearen arrazoia.

4/2005 Legean, otsailaren 18koan, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoan, zera ezartzen da 14. artikuluan:

*“Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan”.*

Programa hau egotearen arrazoia, besteak beste, legezko mandatu hori da.

Aipatu behar da, **2018az geroztik**, Donostiako Udalak **diru-laguntza** bat jasotzen duela Berdintasun Ministerioaren eskutik, **Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunetik** eratorrita, genero-indarkeria desagerrarazteko politika publikoak sustatzeko asmoz.

2020az geroztik diru-laguntza hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez jasotzen da. **2022ko martxoan diru-laguntza jasotzea aurreikusten da**, 2021eko uztaila eta 2022ko uztaila bitarteko neurrietarako. Une honetan ez da ezagutzen zein kopuru jasoko den. Dena den, aurreko urtekoa (zehazki, 71.356,92 euro) baino handiagoa izango dela aurreikusten da.

**Diru-laguntza behar bezala kudeatu ahal izateko Gizarte Ekintza eta Berdintasun sailtako gastu arrunta areagotzea gomendatzen da** (sail horiek justifikatu behar dute diru-laguntza hori) kopuruaren erabakiaren berri jakiten denean.

#### **DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA**

Emakumeen Etxea emakume asko eta orotarikoentzako **topaketa, prestakuntza, pentsamendu eta ekintzarako** espazio bat da. Etxea kudeaketa-eredu misto edo partekatu baten bidez dago antolatua, mugimendu feministaren eta Donostiako Udaleko berdintasun sailaren artean.

Donostiako Udalak Etxe horretara bideratutako ekarpena **2022. urteari begira 277.091,82 eurokoa da (-8.859 euro gutxiago 2021ean baino)**.

Murrizketa hori, funtsean, **lanaldi erdian aritzen zen langile bat kentzearen** ondorio da.

Aurretiko txostenetan jasotzen zen eran, ezinbestekoa da **Emakumeen Etxerako espazio berri bat** gaitzea, **irigarritasun errazekoa**, eta zerbitzu eta jarduerak hartzeko **instalazio egokiak** izango dituen.

Eskaera hori 2020ko urriaren 20ko Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako **Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean berresten da**. Plan horretan 4. Proiektu-emaitza hau jasotzen da: **Emakumeen Etxe handiagoa, anitzagoa eta koordinazio gehiagorekin**.



<b>DONOSTIAKO UDALAK EMAKUMEEN ETXERA EGINDAKO EKARPENA</b>	
<b>1. Hitzarmena Emakumeen Etxea Elkartearekin</b>	
Espazioaren dinamizazioa arratsaldeko ordutegian	46.000,00 €
<b>2. Langileak</b>	
Udal langile bat lanaldi osoan	57.745,62 €
<b>3. Ikastaroak, ahalduntze-taldeak eta zerbitzuak</b>	
Auto-defentsa ikastaroak	8.000,00 €
Laguntza terapeutikoko zerbitzua	17.983,20 €
Aholkularitza juridikoko zerbitzua	10.448,96 €
Ahalduntze-taldea dibertsitate funtzionala duten emakumeentzat	9.239,08 €
Ikasketak baliozkotzeko zerbitzua emakume atzerritarrentzat	6.929,31 €
Sexu-informaziorako eta indarkeria matxisten prebentziorako zerbitzua gateentzat eta neska gazteen ahalduntze-taldea	13.538,09 €
Ahalduntze-taldea indarkeriari aurre egin beharrean diren emakumeentzat	9.239,08 €
Etxeko langileentzako aholkularitza-zerbitzua	5.224,48 €
Ahalduntze-taldea indarkeriari aurre egin beharrean diren emakumeentzat	8.944,00 €
Literatura feministako taldeak: euskaraz eta gaztelaniaz	4.800,00 €
<b>4. Eraikuntzaren mantenua</b>	
Gastu arrunta (telefonoa, garbiketa, fotokopia, elektrizitatea, komunitateko gastuak, konponketa txikiak)	48.000,00 €
Obrak (konponketak eta hobekuntza-lanak)	20.000,00 €
<b>5. Komunikazioa</b>	
Argazkiak eta bideoak	2.000,00 €
Hileroko programak: diseinua, maketazioa eta inprenta	4.000,00 €
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta maketazioa	5.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>277.091,82 €</b>

• **GOMENDIOAK**

2022. urteari begira ezarri asmo diren **Emakume eta gizonen berdintasunerako IV. Planeko neurriak** txertatzeko **beharrezkoak diren baliabideak helaraztea.**

**Emakumeen Etxeari** dagokionez, eta dagoeneko berdintasunerako IV. planean onartutakoari jarraiki: 4. proiektu-emaizta *Emakumeen Etxe handiagoa, anitzagoa eta koordinazio gehiagorekin.*

- Egungo egiazko premiei erantzungo dien **espazio egoki** bat lortzea.

- Arreta egoki baterako **beharrezkoak diren giza baliabideak bideratzea.**

Gastu arruntaren zenbatekoa areagotzea aurreikustea, ondoren Estatuko Itunaren diru-laguntzaren ondoriozko diru-sarreran (Berdintasun programan eta Gizarte Ekintzakoaren artean banatzekoa) egoztekoa. Etorkizunean **indarkeria matxisten arreta eta prebentziorako gastua indar dadin**, kanpoko diru-laguntzak eskuratzearen gorabehera.

## 5.2.2. GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA

### • PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA

**Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzeta** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **1.906.520 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 0,45**. 2021ean haren zuzkidura 1.802.014 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 0,45. Beraz, programa hori **104.506 eurotan areagotu da (% +5,80)**

LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	213.236,00	217.742,00	4.506,00	%2,11
2. kapitulua	117.250,00	117.250,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	1.471.528,00	1.571.528,00	100.000,00	%6,80
<b>TOTAL</b>	<b>1.802.014,00</b>	<b>1.906.520,00</b>	<b>104.506,00</b>	<b>%5,80</b>

**Igoera handiena 4. kapituluan** ematen da: +30.000 euro lehia askeko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren diru-laguntza ildoari (481.02) eta +70.000 euro lehia askeko Lankidetzarako diru-laguntzen partida (481.01).

**Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzeta arloko sentsibilizazio-proiektuetara** bideratzen den **226.99 partida** mantendu egin da aurreko urtearekiko. Donostia Munduen artean programa generoari dagokionez duen garrantziagatik nabarmentzen da.

### • PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

481.01 **partidaren aurrekontu-zuzkidura** +70.000 euro **areagotu da (% +9,05)**. Partida horretako zuzkidura kanpoan garatzeko lankidetzeta-proiektuetarako diru-laguntzetara bideratzen da osorik. Diru-laguntza horien oinarrietan **berdintasunerako klausulak** jasotzen dira, Gobernu Kanpoko Erakundeen esku-hartzean emakumea bultzatzen dituzten programen erdian ipintzea ziurtatzekoak, haien baitira txirotasunetik eratorritzen diren egoerak gehien pairatzen dituztenak.

LANKIDETZA ETA GARAPENARAKO HEZKUNTZA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	773.748,00	843.748,00	70.000,00	%9,05
<b>GUZTIRA</b>	<b>773.748,00</b>	<b>843.748,00</b>	<b>70.000,00</b>	<b>%9,05</b>

Garapenerako Lankidetzaren programa da genero-ikuspegia bere jardunean ondoen txertatzen duenetako bat, izan ere, hura kudeatzen duen Zuzendaritzak **Giza Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzako Plan Gidari Iraunkor bat** du, eta plan horretan **genero aldetiko ekitatea printzipio gidarien artean** zehazten da, eta **emakume eta gizonen berdintasuna zeharkako ildo modura**.

- **GOMENDIOAK**

Generoaren gaia lantzeko **printzipio gidariak mantentzea**.

### 5.2.3. DONOSTIA LAGUNKOIA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Donostia Lagunkoia** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **75.000 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 0,02**. 2021eko aurrekontuekin alderatuz **zuzkidura eta zenbateko bera mantentzen da**, orduko hartan 98.000 eurotik 75.000 eurora jaitsi ostean. Programa osoa ondare arrunt eta zerbitzuekin lotutako gastuekin lotzen da.

DONOSTIA LAGUNKOIA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	75.000,00	75.000,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>75.000,00</b>	<b>75.000,00</b>	<b>0,00</b>	<b>%0,00</b>

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailearen **partida espezifikorik gabe**.

Donostia Lagunkoia Donostiako Udalak sustatutako **Hiri Plan** bat da, populazioaren zahartzeak hiriko bizitzako esparru guztietan planteatzen dizkigun erronketan erreparatzen duena. **Hiriaren laguntasuna hobetzea eta, horrekin, adin nagusiko pertsonen eta, hedaturaz, Donostiako gizarte osoaren bizikaltatea hobetzea xede duten proiektu eta jarduerak** barne hartzen ditu, pertsona horiek hiriaren bizitzarako suposatzen duten ahalmen handia gaineratu asmo duten komunitateko **prozesu parte-hartzaileak** sortuz.

4 dira Donostia Lagunkoia egituratzen duten ardatzak:

- Espazio publiko integratzailea eta mugikortasun seguru eta irisgarria.
- Bizitza osorako etxebizitzak
- Zaindu egiten duen komunitate bat
- Bizi-ziklo berri baterako trantsizioa eta adinaren kudeaketa

**Generoaren ikuspuntutik programa garrantzitsua da adin nagusiko pertsonen** artean duen eraginagatik (**emakumeak gehienak**) eta zaintzekin eta adin nagusiko pertsonen parte-hartzearekin duen loturagatik.

**Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. planean erantzukizuna du Indarkeria Matxistaren Prebentzio Integrala izeneko 6. proiektu-emaitzan** (6.4. neurria: Adin nagusiko emakumeei zuzendutako programetan sentsibilizatorako espazioak sortzea) eta **Kalitatezko zaintzak eta enpleguak izeneko 8. proiektu-emaitzan** (8.2. neurria: Zaintzen gaineko gogoeta bultzatzea eta 8.5. neurria: Eguneroko bizitzarekin lotutako ezkutuko talentua azalertzek belaunaldien arteko proiektu bat abian jartzea).

• **GOMENDIOAK**

**Zuzkiduretan** Donostiako Udalaren Emakume eta gizonen berdintasunerako **IV. Planaren barnean aurreikusitako ekintzak kontuan izatea.**

**GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMAK**

Jarraian, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzako programa guztiak aztertzen dira eta horien guztien bukaeran Zuzendaritzaren gastu eraldatzailearen zenbateko osoa jasotzen duen taula bat atxikitzen da.

**5.2.4. GIZARTE ZERBITZUETAKO ZENTROAK**

• **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Gizarte Zerbitzuen Zentroak** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **4.632.680 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 1,09**. 2021ean haren zuzkidura 4.2545.639 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 1,06. Beraz, programa hori **387.041 eurotan areagotu da (% +9,12)**

GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.842.776,00	4.226.895,00	384.119,00	%10,00
2. kapitulua	402.863,00	405.785,00	2.922,00	%0,73
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.245.639,00</b>	<b>4.632.680,00</b>	<b>387.041,00</b>	<b>%9,12</b>

**Funtsezko programa** bat da **Gizarte Ekintzako politiketarako**. Programa honek gizarte zerbitzuetako zentroen langileen gastua barne hartzen du, horiek baitira gizarte zerbitzuetako Euskadiko sistemarako sarbidea.

Langileen gastuarekin (**1. kapitulua**) lotutako igoera hiru faktore batzearen ondorio da: langileen ordainsarien % 2ko igoera orokorra, Donostiako Udalean lanpostuen gainean egindako balioespenetik eratorritako igoerak eta programan **Gizarte Langilearen lanpostu bat gehitzearen ondoriozko igoera**. Azken hori positibotzat jotzen da, izan ere, programa hori indartu egiten da generoari garrantzia handia emanez.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Aurrekontu-programa honetan modu espezifikoan jasotzen ez bada ere, **4.500 euroko** aurrekontu bat dago **Gizarte Ekintzako Zuzendaritzak** (programa honetara atxikia dago) **kudeatutako aurrekontu-programa guztietako langileak berdintasun arloan prestatzera bideratua**.

- **GOMENDIOAK**

Programako **datuak bildu eta sistematizatzeari dagokionez interseksionalitatea txertatzeari begira aurrera egitea.**

### 5.2.5. GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Ongizate soziala: zuzendaritza eta administrazioa** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio. 2022ko aurrekontuan zuzkidura **799.484 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 0,19**. 2021ean haren zuzkidura 850.160 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 0,21. Beraz, programa hori **-50.676 eurotan jaitsi da (% -5,96)**

GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	516.922,00	487.026,00	-29.896,00	-%5,78
2. kapitulua	29.772,00	29.492,00	-280,00	-%0,94
4. kapitulua	303.466,00	282.966,00	-20.500,00	-%6,76
<b>GUZTIRA</b>	<b>850.160,00</b>	<b>799.484,00</b>	<b>-50.676,00</b>	<b>-%5,96</b>

Programa honetan beherakada **1. kapituluarekin** lotzen da funtsean (% -5,78), laguntza administratiboko lanpostua betetzen zuen pertsona batek erretiroa hartu ondoren. 4. kapituluan **ATECE** (Hartutako kalte zerebraleko elkarte) **elkartearen aldeko diru-laguntzaren 481.03 partida kendu egin da**, 2021ean unekoa izan baitzen.

**Irabazi asmorik gabeko elkarteen aldeko diru-laguntzaren ildoan (481.01) zenbateko bera mantentzen da, 274.800 eurokoa. Elkarte eta proiektu horiek eragin zuzena dute zaintzekin. Beraz, genero aldetik garrantzi handikoak dira, eta horiek mantendu eta, are, areagotzea positibotzat jotzen da.**

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Aurrekontu-programa honetan modu espezifikoan jasotzen ez bada ere, **4.500 euroko** aurrekontu bat dago **Gizarte Ekintzako Zuzendaritzak** (programa honetara atxikia dago) **kudeatutako aurrekontu-programa guztietako langileak berdintasun arloan prestatzera bideratua.**

**226.09.01 partida kendu egiten da, 2.460€** euroko zenbatekokoa, 2021ean barneratzen zena, **Berdintasun Planeko** ekintzak egitekoa.

- **GOMENDIOAK**

2020an bezalaxe, **kontratueta eta diru-laguntzen deialdietan berdintasunerako klausulak gaineratzea** gomendatzen da, beren jarduna gizarte ekintzaren esparruan garatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteei bideratuak, horiek generoari dagokionez duten inpaktuaren analisia egitearekin batera.

## 5.2.6. TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Tutoretzapeko apartamentuak** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **1.917.247 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 0,45**. 2021ean haren zuzkidura 1.740.417 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 0,44. **176.830,00 eurotan areagotu da (% +10,16).**

APARTAMENTU TUTELATUAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	179.547,00	182.809,00	3.262,00	%1,82
2. kapitulua	1.524.790,00	1.698.358,00	173.568,00	%11,38
4. kapitulua	36.080,00	36.080,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.740.417,00</b>	<b>1.917.247,00</b>	<b>176.830,00</b>	<b>%10,16</b>

Programa honek adin nagusiko pertsona autonomoei zuzendutako etxebizitza sozialen mantenurako gastuak barne hartzen ditu. Igoera Arrasate kaleko apartamenduen zuzkidura berri baten ondorio da, zaintzen esparruan inpaktu positiboa duena.

● **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Aurrekontu-programa honetan modu espezifikoan jasotzen ez bada ere, **4.500 euroko** aurrekontu bat dago **Gizarte Ekintzako Zuzendaritzak** (programa honetara atxikia dago) **kudeatutako aurrekontu-programa guztietako langileak berdintasun arloan prestatzera bideratua**.

Programa beraren barnean **ez da gastu eraldatzailearen partida espezifikorik ez da identifikatzen**.

Zaintzekin eta erantzunkidetasunarekin lotura zuzena duen programa bat da. Beraz, **genero aldetik garrantzi handikoa da**.

● **GOMENDIOAK**

2019 eta 2020ko gomendioa mantentzen da: desiragarria da **zerbitzuaren eskaerari, estalduratasari eta pertsona onuradunak hautatzeko irizpideei buruzko datuak izatea, sexuaren arabera banakatuta, generoaren ikuspuntutik balioespen bat egiteko**.

**5.2.7. GIZARTE HARRERAKO ZENTROA**

● **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Gizarte Harrerako Zentroa** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **1.378.956 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 0,32**. 2021ean haren zuzkidura 1.294.364 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 0,31. **129.592 eurotan areagotu da (% +10,37)**.

GIZARTE ABEGI ETXEA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	805.848,00	775.420,00	-30.428,00	-%3,78
2. kapitulua	443.516,00	453.536,00	10.020,00	%2,26
6. kapitulua	0,00	150.000,00	150.000,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.249.364,00</b>	<b>1.378.956,00</b>	<b>129.592,00</b>	<b>%10,37</b>

**1. kapituluko** beherakada, emandako informazioaren arabera aurrekontuetan egindako doikuntza baten ondorio da, ez du berekin ekartzen programako lantaldea murriztean, ezta ordezkoen gastua kentzea ere.

**2. kapituluan** Mons pasealekuan kokatutako etxerik gabeko pertsonen harrerarako zentro baten mantenu-gastuak sartzen dira. Aipatu zentroak 40 plaza ditu eta erabiltzaile diren pertsonak 3 gau eman ditzakete bertan gehienez. “Exijentzia baxuko” zentro bat da, hau da, ez dago erabiltzaileentzat baldintzarik. Dena den, pertsona horiekin ere ez da gizarte esku-hartzerik egiten eta erabiltzaile gehienak gizonak dira.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honen barnean, **2. kapituluan**, 226.09 Ikerketa eta lan teknikoak izeneko **partida berri bat** jasotzen da, **10.000 euroko zuzkidura batekin**, zentroko erabiltzaile diren pertsonei zuzendua **genero-ikuspegia barneratzen duten prestakuntza eta jarduerak egiteko**.

Gainera, **6. kapituluan beste partida bat** gaineratu da, 622.01 partida, *Eraikuntzak eta zerbitzuetarako bestelako eraikinak* izenekoa, **150.000 euroko zuzkidura batekin**. Haren helburua zentroaren alboko eraikina zaharberritzea da, **familiei harrera hobea emate aldera**, instalazio horiek horien egiazko premietara egokituz.

Obra horrek **inpaktu positiboa dakar emakume eta haurrentzat**, izan ere, muturreko zaurgarritasun egoeran dauden familiak modu erraz eta egokiagoan iritsi ahalko dira zentrora. Eta kolektibo horretan emakumeen portzentajea handiagoa da, eta horien artean gurasobakar ama asko ere badaude.

Ekintza hori zentroan **genero-ikuspegitik abiatuz egindako diagnostik** eratoritzen da. Bertan, beste gomendio batzuen artean, inbertsio hori 2022an egin zedila adierazi zen.

**Donostiako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. planean, Erreparazio Osoa izeneko 7. proiektu-emaitzaren** barnean, 7.4. neurria barneratzen da, hots, "Emakumeentzat baliabide espezifiko eta seguruak eskaintzea". Zentro hori neurri horren aurrean erantzuna ematen lagun dezakeen baliabide bat da.

Era berean, Gizarte Ekintzako gainerako programen ildo berean, **berdintasun arloko prestakuntzarako zuzkidura** (4.500 euro) programa horretako langileei dago zuzendua.

- **GOMENDIOAK**

Zentroan genero-ikuspegitik egindako diagnostik eratorri ziren **ekintza ezberdinak txertatzen jarraitzea**.

### 5.2.8. GIZARTERATZEA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Gizarteratzea** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **5.105.073 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 1,20**. 2021ean haren zuzkidura txikiagoa izan zen, 4.805.428 eurokoa, aurrekontuen gainean portzentaje berdina suposatzen zuena (% 1,20). Beraz, **299.645 eurotan areagotu da (% +6,24)**.



GIZARTERATZEA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	493.533,00	553.799,00	60.266,00	%12,21
2. kapitulua	2.320.830,00	2.453.727,00	132.897,00	%5,73
4. kapitulua	991.065,00	997.000,00	5.935,00	%0,60
6. kapitulua	1.000.000,00	1.100.547,00	100.547,00	%10,05
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.805.428,00</b>	<b>5.105.073,00</b>	<b>299.645,00</b>	<b>%6,24</b>

Azken bi urtetan goranzko joera mantentzen da, funtsean, **6. kapituluaren** ondorioz, partida bakar batekin, hots, *622.02.01 Villa Saliaren egokitzapena* izenekoa, Hestia eguneko zentroa eta haurtzaroko programak garatzekoa.

Langileen gastuarekin (**1. kapitulua**) lotutako igoera hainbat faktore batzearen ondorio da: langileen ordainsarien % 2ko igoera orokorra, Donostiako Udalean lanpostuen gainean egindako balioespenetik eratorritako igoera, organigramaren berrantolaketa, eta programan **Gizarte Langilearen lanpostu bat gehitzearen ondoriozko igoera**. Azken hori **positibotzat jotzen da, izan ere, programa hori indartu egiten da generoari garrantzia handia emanez.**

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Era berean, Gizarte Ekintzako gainerako programen ildo berean, **berdintasun arloko prestakuntzarako zuzkidura orokorra (4.500 euro)** ere programa horretako langileei dago zuzendua. Programa beraren barnean **ez da gastu eraldatzailearen partida espezifikorik ez da identifikatzen.**

- **GOMENDIOAK**

**Datuak sexuaren arabera banakatzeko eta horiek genero-ikuspegitik aztertzeko jarduna mantentzea. Ahal den heinean, analisiaren beste zenbait aldaera sartzea:** adina, jatorria, etab. **Ez Bitarra laukia sartzeko aukera aztertzea.**

## 5.2.9. HAUR ETA FAMILIEN PREBENTZIOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Haur eta familien prebentzioa** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **3.153.476 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 0,74**. 2021ean haren zuzkidura 3.092.655 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 0,77. Beraz, programa hori **60,821 eurotan areagotu da (% +1,97)**

ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	573.580,00	634.526,00	60.946,00	10,63%
2. kapitulua	2.519.075,00	2.518.950,00	-125,00	0,00%
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.092.655,00</b>	<b>3.153.476,00</b>	<b>60.821,00</b>	<b>1,97%</b>

Igoera **1. kapituluarekin** lotzen da funtsean. Arrazoiak gizarte ekintzako beste programa batzuetan dagoeneko aipatutakoen antzekoak dira: langile guztientzako ordainsariaren % 2ko iguera orokorra, lanpostuen gainean egindako balioespenaren emaitzak eta organigramaren berregituraketa. Programa honetan ez da langile kopurua igo.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

**Indarkeria Matxistaren biktima diren Emakumearen Arreta Zerbitzua (IMEAZ)** programa honetan kokatzen da maila funtzionalean. IMEAZ zerbitzuak alojamendu, harrera, diagnosi, orientazio, laguntza psikologiko eta berehalako laguntza ekonomikoko baliaabideak eskaintzen dizkie indarkeria matxistari aurre egiten dieten emakumeei.

Horrenbestez, langile horiei zuzendutako langileen gastu guztia gastu eraldatzailatzat hartzen da. Gastu hori **183.587,95 euroa** areagotu da 2022an (176.113,86 eurokoa zen 2021ean), aurretiaz Gizarte Ekintzako programetan aipatutako arrazoi berdinen ondorioz (% 2ko iguera eta lanpostuen balioespena).

**Gainera**, 227.04.02 partidan barneratzen den **indarkeria matxistaren aurkako prebentziorako programa** batera bideratutako zenbatekoa 5.000 eurotik **6.000 euroa areagotzen da**. 2022an diru hori **indarkeria matxistaren kontrako prebentziorako eta jarduteko protokolo baten triptiko** bat egiteko erabili da (eduki, diseinu eta inprimaketarekin lotutako gastuak barneratzen dira).

Era berean, Gizarte Ekintzako gainerako programen ildo berean, **berdintasun arloko prestakuntzarako zuzkidura orokorra (4.500 euro)** ere programa horretako langileei dago zuzendua.

- **GOMENDIOAK**

**Indarkeria matxistaren prebentzio eta arretara bideratutako baliaabideak areagotzea.**

## 5.2.10. ADIN NAGUSIKO PERTSONEN SUSTAPENA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Adin Nagusiko Pertsonen Sustapena** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **491.283 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 0,12**. 2021ean haren zuzkidura 357.180 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 0,09. Beraz, programa hori **134.103 eurotan areagotu da (% +37,54)**

ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	55.536,00	163.681,00	108.145,00	%194,73
2. kapitulua	276.907,00	302.865,00	25.958,00	%9,37
4. kapitulua	24.737,00	24.737,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>357.180,00</b>	<b>491.283,00</b>	<b>134.103,00</b>	<b>%37,54</b>

Programa horren bidez beren jarduera udal ekipamenduetan edo berezkoetan garatzen dituzten adin nagusiko elkarteei ematen zaie laguntza.

Nagusiki **1. kapituluarekin** lotutako igoera nabarmentzen da, udalaren **lantaldean** lehen Aldundiak emandako diru-laguntza baten baitan zeuden **langileak sartzearen** ondorioz. Berezko lantaldean sartzea positibotzat jotzen da.

**2. kapituluari** dagokionez, igoera, funtsean, *227.04.01 Zentron dinamizazioa* izeneko partidaren igoeraren ondorio da, 150.960 eurotik 176.643 euroa pasa dena 2022an (+25.683 euro).

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Era berean, Gizarte Ekintzako gainerako programen ildo berean, **berdintasun arloko prestakuntzarako zuzkidura orokorra (4.500 euro)** ere programa horretako langileei dago zuzendua.

Programa beraren barnean **ez da gastu eraldatzailearen partida espezifikorik ez da identifikatzen**. Generoaren ikuspegitik 227.04 partida da generoari dagokionez garrantzia gehien duen partida, kontratu soziokulturalak kudeatzekoa; bereziki 55 urtetik gorakoei zuzendutako aisialdi eta denbora libreko "+55" udal programaren xedea zahartze aktiboa sustatzea, eta Aieteko auzoan dagoen Topalekua izeneko zentroa kudeatzea da.

- **GOMENDIOAK**

Adin nagusiko emakumeen **egiazko premietan sakontzen jarraitzea**, indarkeria matxistako kasuetan bereziki erreparatuz.

### 5.2.11. ADIN NAGUSIKO PERTSONEN EGOITZA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

**Adin Nagusiko Pertsonen Egoitza** programa *Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokio eta 2022ko aurrekontuan zuzkidura **918.755 eurokoa** da, hots, udal **aurrekontuen % 0,22**. 2021ean haren zuzkidura 908.471 eurokoa izan zen, hots, aurrekontuen % 0,23. Beraz, programa hori **10.284 eurotan areagotu da (% +1,13)**

ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	908.471,00	918.755,00	10.284,00	%1,13
<b>GUZTIRA</b>	<b>908.471,00</b>	<b>918.755,00</b>	<b>10.284,00</b>	<b>%1,13</b>

Aurrekontu-zuzkidura 2. kapituluan ardatzen da. Adin nagusiko pertsona autonomoei bizitegi-ekipamenduan ostatu eman eta artatzeko zerbitzua emateko Zorroaga Fundaziora bideratzen da zenbatekoa.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailearen partida zehatzik espezifikatzen.

- **GOMENDIOAK**

Desiragarria izango litzateke **zerbitzuaren eskaerari eta estaldura-tasari buruzko datuak izatea sexuaren arabera banakatuta**, zerbitzuaren egokitasuna balioetsi ahal izateko generoaren ikuspuntutik.

## 5.2.12. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

*Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokion **Etxez Etxeko Laguntza** programa - **400.000** eurotan murriztu da 2022an (% **-4,16**), 9.614.992,00 eurotik (aurrekontuen % 2,40) 9.214.984,00 eurora (% 2,17) igaroz.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	107.648,00	109.675,00	2.027,00	%1,88
2. kapitulua	9.507.344,00	9.105.309,00	<b>-402.035,00</b>	<b>-%4,23</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.614.992,00</b>	<b>9.214.984,00</b>	<b>-400.008,00</b>	<b>-%4,16</b>

Programa horretan izandako jaitsiera, aurreko urteetan bezala, **2. kapituluarekin** lotzen da. Jaitsiera hori ordainketa partekatuaren tarte handienetan izandako aldaketekin eta mendekotasun mailaren bat edo premiaren bat duten pertsonentzako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) emateko kontratuko finantzazioaren kalkuluan izandako aldaketa batekin lotzen da.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailearen partida zehatzik espezifikatzen programaren barnean.

**Zerbitzu gakoa da generoaren ikuspuntutik**, izan ere, haren eragina hirukoitza da: alde batetik, zaintza jasotzen duten pertsonengan, kalitatezko zerbitzu bat izan dezaketena; bigarrenik langileengan eta, hirugarrenik, ELZ zerbitzuak egiten ez dituen lan horiek beregain hartu beharko luketen pertsonengan, sarritan etxean eta ordainsaririk jaso gabe, eta dakigunez, kasu gehienetan emakumeak direnak.

Datuetan erreparatuz, azken urteetan **artatutako pertsona gehienak emakumeak** dira, eta zerbitzuaren esleipenduna den enpresak **kontratutako pertsonak** ere emakumeak dira nagusiki, **kolektibo hori oso feminizatua** baitago.

- **GOMENDIOAK**

Zerbitzuaren eskaerari eta estaldura-tasari buruzko datuak izatea sexuaren arabera banakatuta, zerbitzuaren egokitasuna balioetsi ahal izateko generoaren ikuspuntutik.

Kontratatzeko pleguetan **berdintasunerako klausulak sartzea** balioestea.

### 5.2.13. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

*Gizarte Zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastuen politikari dagokion **Gizarte Larrialdiko Laguntzak** programa % **+2,08** igo da **2021. urtearekin alderatuz**, 2.638.355,00 eurotik 2.693.355,00 eurora igaroz. Aurrekontuetan, ordea, kontrakoa gertatu da, % 0,66ko portzentajetik % 0,63ra pasa baita.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	2.638.355,00	2.693.355,00	55.000,00	%2,08
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.638.355,00</b>	<b>2.693.355,00</b>	<b>55.000,00</b>	<b>%2,08</b>

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailearen partida zehatzik espezifikatzen.

- **GOMENDIOAK**

**Datuak sexuaren arabera banakatzeko jardunean sakontzea** eta horiek **genero-ikuspegitik** aztertzea. Ahal den heinean, analisiaren beste zenbait aldaera sartzea: adina, jatorria, etab. Ez Bitarra laukia sartzeko aukera aztertzea.

## GASTU ERALDATZAILEAREN LABURPENA GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMEN BARNEAN

Aurretiaz **gizarte ekintzako programa** guztien inguruan azaldutako guztian kontuan izanik ondoriozta dezakegunez, 2022. urterako aurreikusitako **gastu eraldatzailea % +77,78 igo da**, 199.173,86 eurotik 354.087,95 eurora igaroz. Zenbateko horretan langileak prestakuntza arloan prestatzera bideratutako 4.500 euroko zuzkidura barneratzen da.

GIZARTE EKINTZA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	191.713,86	188.087,95	-3.625,91	-%1,89
2. kapitulua	7.460,00	16.000,00	8.540,00	%114,48
6. kapitulua	0,00	150.000,00	150.000,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>199.173,86</b>	<b>354.087,95</b>	<b>154.914,09</b>	<b>%77,78</b>

### 5.3. ONDASUN PUBLIKO LEHENETSIEN EKOIZPENA

Gastuen esparru honetan **12 programa aztertu dira**, zehazki hauek:

- Ikastetxeen funtzionamendua.
- Udalaren Musika eta Dantza eskola (3 programa). Musika eta dantza eskola / Musika eta dantza eskola (Liburutegia) / Musika eta dantza eskola (Txistulariak).
- Hezkuntza programak.
- Giza eskubideak.
- Kultura aniztasuna.
- Donostia Kultura.
- Gazteria.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola) / kirol instalazioak (Donostia Kirola).

#### 5.3.1. IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

##### ● **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

*Hezkuntza* politikaren barnean **Ikastetxeen funtzionamendua** izeneko programa dugu, 2022. urteari begira **7.459.907,00 euroko** aurrekontu-zuzkidura batekin, 2021. urtearekin alderatuz **+240.226 euroko igoera (% +3,33)**. Aurrekontuen gainean duen isla, ordea, % 1,80tik % 1,76ra jaitsi da.

HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNZIONAMENDUA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.688.841,00	1.907.172,00	218.331,00	%12,93
2. kapitulua	5.214.840,00	5.252.735,00	37.895,00	%0,73
6. kapitulua	316.000,00	300.000,00	-16.000,00	-%5,06
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.219.681,00</b>	<b>7.459.907,00</b>	<b>240.226,00</b>	<b>%3,33</b>

Programa honetan lehen sare publikoko **lehen hezkuntza eta haur hezkuntzako eskola eraikinen mantenua** dago esleituta. **2. kapituluaren** barnean, besteak beste, eraikin guztien **garbiketa-gastuak** sartzen dira, hain zuzen, 2022an gehien igo den partida (227.01), 3.844.220,00 eurotik 4.044.584,00 eurora igaroz (% +4,13) Eraikin horien elektrizitate, gas, konponketa eta lanen gastuez gain.

**6. kapitulari** dagokionez, *Eraikinak eta beste eraikuntzak batzuk (622.01)* partida barneratzen da. Kapitulu horrek behera egin du aurreko urtearekin alderatuz, Orixe Ikastolako fatxada birgaitzeko (dagoeneko gauzatu) proiektuaren erredakziorako partida kentzearen ondorioz. Ez dugu aipatu zuzkidura nora bideratzen den jakiteko informazio zehatzagorik.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailearen partida zehatzik espezifikatzen.

Haatik, Udalaren Emakume eta gizonen berdintasunerako IV. planean, 5.2. neurria jasotzen da. *“Patio hezkideak. Ikastetxeetako patioen hobekuntza eta mantenuan genero-ikuspegia gaineratzea (beste espazio batzuk sortzea: txoko lasaiak, berdeak, baratza, kirol jardunak edo mugimendu anitzekoak)”*.

- **GOMENDIOAK**

**Patio hezkideentzako partida espezifiko bat esleitzea Hezkuntza eta Gizarte Sustapeneko zerbitzuen koordinazioarekin.** Udalaren emakume eta gizonen berdintasunerako IV. planeko 5. proiektu-emaitzan ezarritakoaren arabera.

*5.2. Patio hezkideak. Ikastetxeetako patioen hobekuntza eta mantenuan genero-ikuspegia gaineratzea (beste espazio batzuk sortzea: txoko lasaiak, berdeak, baratza, kirol jardunak edo mugimendu anitzekoak)*

### 5.3.2. MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA) / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK)

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

Musika eta Dantza Eskola **Udal Organismo Autonomoa** da, irakaskuntza ez arautuaren helburuetan parte hartzen duena kultura musika eta dantzako diziplina ezberdinen esparru espezifiko eta lehentasunezko batetik abiatuz kulturaren sormen, kritika eta transmisioari so.

Ikerketa antolatu, eskolak eman eta bere Ikasketa Planean jasotzen diren diziplinen ikerketa garatzeaz arduratzen da, bere espezialitateko zerbitzu publikoa emateari berez dagokion kudeaketa administratiboaz arduratzeaz batera.

**Bere aurrekontua hiru aurrekontu-programetan osatzen da:** Musika eta dantza eskola, 5.068.909,00 euroko zuzkidura batekin (% 3,29ko igoera 2021. urtearekin alderatuz); Musika eta dantza eskola (Liburutegia) 159.738,00 euro (% +2,18ko igoera 2021. urtearekin alderatuz); eta Musika eta dantza eskola (Txistulariak) 726.474,00 euroko aurrekontu-zuzkidura batekin eta % 12,25eko igoera batekin 2021. urtearekin alderatuz.

Guztira, beraz, Muska Eskolak **5.955.121,00euroko aurrekontua** du **2022. urteari** begira, 2021eko urtearekin alderatuz (5.711.134,00 euro) zuzkiduran **% 4,27ko igoera** dakarrena **Aurrekontu guztien % 1,40 islatzen du**. Portzentaje hori % 1,42koa zen 2021ean.

Donostiako Udalaren ekarpena 3.319.022,00 eurokoa da gastu arruntan (3.220.000,00 euro 2021ean) eta 140.943,00€ kapital-gastuan (144.000,00 euro 2021ean).

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.988.658,00	5.227.032,00	238.374,00	%4,78
2. kapitulua	578.026,00	586.696,00	8.670,00	%1,50
3. kapitulua	450,00	450,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	144.000,00	140.943,00	-3.057,00	-%2,12
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.711.134,00</b>	<b>5.955.121,00</b>	<b>243.987,00</b>	<b>%4,27</b>

● **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa horren **gastu eraldatzailea 5.100 eurotan mantentzen da**. Zenbateko hori Eskolako Berdintasun Batzordetik berdintasuna sustatzera bideratzen diren jarduera ezberdinetara dago bideratua, esate baterako: emakume konpositoreen aitortza historikoa (horien lana ikusgai ipintzea, horien ikusezintasunaren inguruan sentibilizatzea, etab.) eta diziplina batzuetan ikasleen parte-hartzeari dagokionez dagoen ezberdintasuna konpentsatzeko zenbait esku-hartze.

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Prtokolo eta ordezkariak (02.226.02)	600,00	600,00	0,00	%0,00
Argitalpenak, publizitatea eta propaganda (02.226.03)	600,00	600,00	0,00	%0,00
Bilera eta hitzaldiak (02.226.05)	1.500,00	1.500,00	0,00	%0,00
Kanpoko bestelako enpresa lanak (01.227.99.99)	1.800,00	1.800,00	0,00	%0,00
Funts bibliografikoak (41.628)	600,00	600,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.100,00</b>	<b>5.100,00</b>	<b>0,00</b>	<b>%0,00</b>



Musika eta Dantza Eskolaren barnean Berdintasun Talde bat dago, haren kudeaketan eta bere zerbitzuak ematean berdintasunaren gaia zeharka jorratzeko, eta antolaketa eta funtzionamendurako erregelamendu bat eratuz generoaren ikuspuntutik.

● **GOMENDIOAK**

**Berdintasunerako neurriak garatzeko barne koordinazioko Taldea mantentzea.**

**5.3.3. HEZKUNTZA PROGRAMAK**

● **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

Hezkuntza gastuen politikari dagokion **Hezkuntza programak** izeneko programak **igoera txiki bat** izan du 2022an, **% +0,41ekoa**, 244.320,00 eurotik 245.316,00 eurora igaroz. Aurrekontuen gaineko portzentaje berdina mantentzen du, % 0,06koa.

HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	56.251,00	57.247,00	996,00	%1,77
2. kapitulua	57.740,00	57.740,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	130.329,00	130.329,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>244.320,00</b>	<b>245.316,00</b>	<b>996,00</b>	<b>%0,41</b>

● **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetako **gastu eraldatzailea % 11,30 areagotu da 2021. urtearekin alderatuz**. Honatx aurrekontu-zuzkidura honen banaketa:

- **16.000 euroko zenbatekoa mantentzen da genero-indarkeriaren prebentziorako** programara bideratutako 226.99.02 partidaren barnean.
- **Berdintasun Programaren partida (226.99.01) 4.840 euro areagotu da**, 20.000 eurotik 24.480 eurora pasaz.
- **Hip Hip Hurri** programara (481.03) bideratutako **zenbatekoa 6.833 eurotan mantentzen da**.

HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	42.833,00	47.673,00	4.840,00	%11,30
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833,00</b>	<b>47.673,00</b>	<b>4.840,00</b>	<b>%11,30</b>

• **GOMENDIOAK**

Hezkuntzaren esparruko elkarteekin hitzartutako hitzarmen eta diru-laguntzetan **berdintasunerako klausulak sartzeko aukera balioestea** gomendatzen da, diruz lagundutako jardueretan hezkidetzak bermatze aldera.

5.3.4. GIZA ESKUBIDEAK

• **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

Hezkuntza gastuen politikari dagokion **Giza eskubideak** programa **jaitsi egin da 2021. urtearekin alderatuz, % -7,43an**, 890.503,00 eurotik 824.380,00 eurora igaroz. Aurrekontuen gaineko portzentajeak ere behera egin du (% 0,22koa zen 2021ean eta % 0,19koa da 2022an).

GIZA ESKUBIDEAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	299.317,00	225.672,00	-73.645,00	-%24,60
2. kapitulua	502.206,00	509.728,00	7.522,00	%1,50
4. kapitulua	88.980,00	88.980,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>890.503,00</b>	<b>824.380,00</b>	<b>-66.123,00</b>	<b>-%7,43</b>

**1. kapituluan** izandako jaitziera Aieteko Baliabide Pedagogikoen Zentroaren kudeaketarako kontratazioaren errefortzua amaitzearen ondorio da.

**2. kapituluan** memoria historikoa berreskuratu, bakerako hezi eta prestatzeko eta giza eskubideak errespetatzeko, zein normalizazio politikorako ekarpena egiteko partidak jasotzen dira.

Programa honetan proiektio sozial gehien duten jardueren artean **Zinema eta Giza Eskubideen Jaialdia** aipatu behar da, Giza Eskubideen sailak antolatua Donostia Kultura eta eragile ezberdinen lankidetzarekin. 2022ko partida, eta 2021ean % -17,5 murriztu ondoren, 130.978,00 eurotik 148.500,00 eurora **areagotu da aurten (% +13,38)**.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
<b>226.99</b>	<b>Bestelako gastuak</b>	<b>427.930,00</b>
226.99.01	Oroimen historikoa	45.500,00
226.99.02	Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak	48.300,00
226.99.03	Giza Eskubideen Zinemaldia	148.500,00
226.99.06	Oraitzepenezko ekintzak eta biktimen aitortza	18.000,00
226.99.07	Beste erakundeekiko proiektuak	161.630,00
226.99.08	Gerra Zibileko kokalekuak seinaleztatzea	6.000,00

• **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

**%100 areagotu da ekainaren 28ko kanpainara (LGTBIQ+) bideratutako zenbatekoa**, sentsibilizazio eta kontzientzia programako 226.99.02 partidaren barnean jasotzen dena.

GIZA ESKUBIDEAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	6.000,00	12.000,00	6.000,00	%100,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.000,00</b>	<b>12.000,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>%100,00</b>

Giza Eskubideen sailak urteak daramatza berdintasun sailarekin kolaboratuz berdintasun-politikak txertatzen. Beraz, haren programetan genero-ikuspegia gaineratzen da, neurri handi edo txikiagoan.

- **GOMENDIOAK**

Sentsibilizazio eta kontzientziako kanpainetikiko **konpromisoa mantentzea.**

### 5.3.5. KULTURA ANIZTASUNA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

Hezkuntza gastuen politikari dagokion **Kultura Aniztasuna** programa **jaitsi egin da 2021. urtearekin alderatuz, % -10,18an**, 446.541,00 eurotik 401.081,00 eurora igaroz. Aurrekontuen gaineko portzentajeak ere behera egin du, % 0,11tik % 0,09ra.

KULTUR ANIZTASUNA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	213.721,00	165.317,00	<b>-48.404,00</b>	<b>-%22,65</b>
2. kapitulua	145.130,00	148.074,00	2.944,00	%2,03
4. kapitulua	87.690,00	87.690,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>446.541,00</b>	<b>401.081,00</b>	<b>-45.460,00</b>	<b>-%10,18</b>

**1. kapitulua** jaitsi egin da, esparruko pertsona bat bere borondatez ateratzearen ondorioz, momentuz bere plaza estali gabe dagoelarik.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetako **gastu eraldatzailea 8.000 eurotik 8.944 eurora areagotu da (% 11,80)** eta **Emakumeen Etxea** topaketa eta ahalduntzeko espazioa dinamizatzerara bideratua dago. **Emakumeen gune interkulturala, jatorri ezberdineko emakumeen espazio bat da, astero elkartzen dena, gure hiriko migrazioaren bizipenari buruz partekatze.**

KULTUR ANIZTASUNA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	8.000,00	8.944,00	944,00	%11,80
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.000,00</b>	<b>8.944,00</b>	<b>944,00</b>	<b>%11,80</b>

Generoaren eta sekzio arteko ikuspuntutik Donostiako Udaleko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. planean jasotzen den *Sekzio arteko begirada* izeneko 2. proiektu-emaitzan laguntzeko programa estrategiko bat da.

- **GOMENDIOAK**

Sekzio arteko politikak txertatzera bideratutako baliabideak indartzea.

### 5.3.6. DONOSTIA KULTURA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

Donostia Kultura Donostiako **Udalaren baitako Enpresa Erakunde Publikoa** da, udal kultur politika kanalizatu eta herritarrei kulturarekin eta jai herrikoiekin lotutako zerbitzu ezberdinak eskaintzen dizkiena, jai horiek identitate indibidual eta kolektiboa osatzen duten adierazpide modura ulertuta.

Erakundearen beste zenbait helburu dira tokiko kultura eta arte ondarea mantentzea, sormenaren eta ekoizpenaren esparruan tokiko kultur ekimenetan laguntza ematea edota kultura anitz, ireki eta tolerantzia sustatzea.

2022. urteari begira haren **aurrekontu-zuzkidura % +15,13 areagotu da** 2021. urtearekin alderatuz, 26.608.921,00 eurotik **30.634.202,00 eurora igaroz**. 2021ean aurrekontua modu adierazgarrian murriztu zen, pandemiak eragindako murriztapenen ondorioz.

**Udalaren ekarpena** da oraindik **diru-sarreraren iturri nagusia**. Hala, egungo aurrekontuari begira 24.220.000,00 eurokoa da aurrekontua **gastu arruntetan (+2.020.000.00 euroko igoera 2021. urtearekin alderatuz)** eta 1.420.000,00 eurokoa **kapital-gastuan (+740.000.00 euroko igoera igoera 2021. urtearekin alderatuz)**.

DONOSTIA KULTURA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	13.018.999,00	13.560.798,00	541.799,00	%4,16
2. kapitulua	12.533.177,00	15.010.041,00	2.476.864,00	%19,76
4. kapitulua	375.245,00	641.863,00	266.618,00	%71,05
6. kapitulua	680.000,00	1.420.000,00	740.000,00	%108,82
8. kapitulua	1.500,00	1.500,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>26.608.921,00</b>	<b>30.634.202,00</b>	<b>4.025.281,00</b>	<b>%15,13</b>

2. eta 4. kapituluetan izandako igoera pandemiaren aurreko jarduera berreskuratzearen ondorio da. 6. kapitulari dagokionez, informazio orokorra eskuratu ahal izan da, xehetasunik gabea, *Eraikinak* (1.420.000,00 euro), *Aplikazioak eta informatika-ekipamenduak* (50.0000,00 euro) eta *Altzariak eta bestelakoak* (50.000,00 euro).

● **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetako **gastu eraldatzailea % +6,42 areagotu da 2021. urtearekin alderatuz**. Honatx aurrekontu-zuzkidura honen banaketa:

- **1.000 eurotan areagotu da** berezko **Berdintasun Planera** bideratutako zuzkidura.
- Emakumeen asterako eta Gure Ahotsaken kontzerturako zuzkidurak mantendu egin dira.
- **San Telmo Museoko programazioa aldatu egin da 2021. urtearekin alderatuz, argazki-erakusketa berri bat** gaineratuta, programazioaren barneko gastu eraldatzailea, **guztira, +11.000 eurotan areagotzea** ekarri duena. Baginen Bagara erakusketa mantendu egiten da, aurrekontu-zuzkidura txikiago batekin.

DONOSTIA KULTURA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Berdintasun plana	14.000,00	15.000,00	1.000,00	%7,14
Emakumearen asteak (Intxaurren eta Altza)	8.000,00	8.000,00	0,00	%0,00
Gure ahotsak kontzertua	15.000,00	15.000,00	0,00	%0,00
San Telmo museoko programazioa: "Baginen bagara"	150.000,00	61.000,00	-89.000,00	-%59,33
San Telmo museoko programazioa: Argazki erakusketa (Lola Garrido / Garry Winogrand "Woman are beautiful")	0,00	100.000,00	100.000,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>187.000,00</b>	<b>199.000,00</b>	<b>12.000,00</b>	<b>%6,42</b>

● **GOMENDIOAK**

**Zeharkako materialekin lotutako gastuaren** analisiari dagokion laugarren aldaeraren **bere kontabilitate analitikoan erabilera dinamizatzen jarraitzea, generoari dagokionez inpaktu positiboa duten aurrekontu-partidak identifikatzea** posible izan dadin (berdintasunerantz jo eta dauden ezberdintasun-arrakalak murrizteko lagungarri diren partidak).

### 5.3.7. GAZTERIA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

*Kultura* gastuen politikari dagokion **Gazteria** programa **igo egin da 2021. urtearekin alderatuz, % +4,02an**, 2.296.281,00 eurotik 2.388.604,00 eurora igaroz **(+92.323,00 euro)**. Aurrekontuen gainean duen isla, ordea, apur bat jaitsi egin da, % 0,57tik % 0,56ra jaitsi da.

GAZTERIA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	498.695,00	507.106,00	8.411,00	%1,69
2. kapitulua	1.578.584,00	1.685.998,00	107.414,00	%6,80
4. kapitulua	138.900,00	141.000,00	2.100,00	%1,51
6. kapitulua	80.102,00	54.500,00	-25.602,00	-%31,96
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.296.281,00</b>	<b>2.388.604,00</b>	<b>92.323,00</b>	<b>%4,02</b>

Programa honen helburua haur, nerabe eta gazteentzat hiri erakargarriago bat lortu, aisialdi eta denbora libreko eskaintza hezigarri eta kalitatezkoa sortu eta, gazteen kasuan, enplegurako eta etxebizitzarako irisgarritasuna ahalbidetzea da.

2. kapituluaren barnean, **jarduera soziokulturalen (226.06)** partida eta **Haurtxoko eta Gaztelekuen (227.04)** sareari buruzko partida dira programa honen hartzaile diren kolektibo ezberdinetan eragin zuzena dutenak, eta garrantzitsuak dira generoaren ikuspuntutik. Haurtxoko eta Gaztelekuetara bideratutako zuzkiduraren kasuan, zenbatekoari begira kapitulu honetan garrantzitsuena da, **areagotu egin dela 2021. urtearekin alderatuz**, 1.143.599,00 eurotik 1.219.934,00 eurora igaroz **(% +6,63)**.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
<b>226.06</b>	<b>Actividades socioculturales</b>	<b>190.220,00</b>
226.06.02	Haur eta gazte aisialdia (denbora librea eta Gabonak)	31.650,00
226.06.04	Gazte plana	24.000,00
226.06.05	Kultura hedatzea	5.200,00
226.06.06	Kultura sustatzea	35.000,00
226.06.07	Berdintasun programak	25.500,00
226.06.08	Ludopatiaren aurkako programa	10.000,00
226.06.09	Martx Up! Programa	38.870,00
226.06.10	0-5 adin tarterako Programa	20.000,00
<b>227.04</b>	<b>Zerbitzu enpresak</b>	<b>1.219.394,00</b>

**Diru-laguntzen ildoei** dagokienez, aurreko urteko berdinak eta zenbateko berean **mantentzen dira**, salbuespen batekin, *Haurtxokoak (hitzarmenak udal Haurtxokorik gabeko auzoetan haurren ekipamenduekin)* 481.02 partidaren diru-laguntzaren ildoak **+2.100.00 eurotan areagotu baita**.

**6. kapituluko** zuzkidura -25.602 eurotan murriztu da. Ez da horri buruzko xehetasunik balioespen bat egin ahal izateko.

<b>GAZTERIA</b>		<b>54.500,00</b>
622.01	Zerbitzuentzako eraikinak eta bestelako eraikuntzak	9.500,00
623.05	Zerbitzuentzako makineria, instalazioak eta tresneria	40.000,00
625.03	Altzariak eta lanabesak	5.000,00

• **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Berdintasun Programak izeneko 226.06.07 partidaren **aurrekontu-zuzkidura 25.500 eurotan mantentzen da**. Partida hori baliatuz ordaintzen dira **gazte eta nerabeen artean indarkeria matxistaren prebentziorako** jardunaldiak urtero antolatzena eta Beldur Barik kanpaina, helburu bereko beste ekimen batzuekin batera, antolatu eta bultzatzera bideratutako gastuak.

GAZTERIA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	25.500,00	25.500,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>25.500,00</b>	<b>25.500,00</b>	<b>0,00</b>	<b>%0,00</b>

**Haurtxoko eta Gaztelekuen sarea** aipatu behar da, generoaren ikuspegitik ekipamendu estrategiko modura, izan ere, haur eta gazteekin zuzenean lan egiteko eta beren premia eta interesak zein diren lehen eskutik jakiteko aukera eskaintzen dute, heziketa ez formaleko programen testuinguruan.

Espazio horien kasuan, hiriko auzoetan zehar modu zabalean hedatutako sare bat dago, eta **kanpoko kontratazio** bidez kudeatzen da. Esleitutako azken kontratuaren **pleguetan berdintasunerako klausurak** gaineratu ziren, eta horri esker zentro horietako hezitzaileek gaur egun Berdintasun arloko prestakuntza dute, Udalaren Berdintasunerako Plana ezagutzen dute eta haur eta gazteekin hezkidetzazko jarduerak burutzen dituzte.

• **GOMENDIOAK**

Gazteriak sustatutako programetan **interseksionalitatearen integrazioan aurrera egitea**.

**5.3.8. DONOSTIA KIROLA / KIROLA, ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA)**

• **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

Kirolen Udal Patronatua **Udalaren Tokiko Organismo Autonomo** modura konfiguratzen da. Bere helburua udalerrian kirola garatzea da, abiapuntutzat hartuta kirola pertsonen oinarrizko eskubide bat dela, alderdi hezigarri edo prestakuntza batetik so, aisialdiarekin lotutako alderdiari begira, edo lehiaketaren edota ikuskizunaren alderdian erreparatuz.

**Kirol instalazioen kudeaketaz** arduratzen da, zuzeneko (Belodromoa, Gasca-Atano, Yoldi, Bidebieta, SS Arena, Intxaurrondo, Altza, Egia, Benta Berri, Etxadi) eta zeharkakoa (Zuhaizti Kiroldegia, Martutene F.Z., Berio F.Z., Matigoxotegi F.Z., Cesar Benito F.Z., Puio F.Z., Herrera F.Z., Riberas Loyola Kirol Kluba).

**Kirol Txartela eta kirolarekin lotutako kanpainak kudeatzen ditu.** Kirol klub eta federazioei **diru-laguntza nominatibo eta errepikakorrak** ematen dizkie.

2022. urteari begira haren **aurrekontu-zuzkidura % +6,53 areagotu da** 2021. urtearekin alderatuz, 17.620.276 eurotik **18.771.750,00 eurora igaroz**. Bere aurrekontua **hiru aurrekontu-programetan osatzen da**: Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa, 4.436.149,00 euroko zuzkidura batekin (% 3,83ko igoera 2021. urtearekin alderatuz); Donostia Kirola, 3.030.079,00 euroa (% +1,78ko igoera 2021. urtearekin alderatuz); eta Kirol Instalazioak 11.305.522,00 euroko aurrekontu-zuzkidura batekin eta % 9,02ko igoera batekin 2021. urtearekin alderatuz.

**Udalaren** ekarpena 9.220.000,00 eurokoa da **gastu arruntean (+1.608.160,00 euro 2021. urtearekin alderatuz** eta 550.000,00€ **kapital-gastuan (-10.000 euro 2021. urtearekin alderatuz).**

DONOSTIA KIROLA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	5.022.153,00	5.330.784,00	308.631,00	%6,15
2. kapitulua	10.745.123,00	11.576.466,00	831.343,00	%7,74
3. kapitulua	23.500,00	35.000,00	11.500,00	%48,94
4. kapitulua	1.269.500,00	1.279.500,00	10.000,00	%0,79
6. kapitulua	560.000,00	550.000,00	-10.000,00	-%1,79
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.620.276,00</b>	<b>18.771.750,00</b>	<b>1.151.474,00</b>	<b>%6,53</b>

• **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

**Azpimarragarria da** 227.07.02 partidan barneratutako **15.000 euroko igoera, kirol klubetan sexu-jazarpenen aurreko prebentzio eta jarduteko protokolo bat** egiteko. Gainera, **4.235 euroko zenbatekoa** mantentzen da **226.99 partidan, sentsibilizazio-kanpainak** egiteko, eta **2.500 eurokoa** 226.02 partidan **Emakumeen Kirolerako ekitaldian trofeoetarako.**

DONOSTIA KIROLA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	6.735,00	21.735,00	15.000,00	%222,72
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.735,00</b>	<b>21.735,00</b>	<b>15.000,00</b>	<b>%222,72</b>

• **GOMENDIOAK**

Eguno **plan estrategikoa** amaitzear denez (2019-2022), **haren ebaluaketan genero-ikuspegia modu zeharkakoan** sartzear, eta hurrengoaren diseinuan ere bai.

Emandako **diru-laguntzen inpaktua** aztertzea, **genero-ikuspegitik.**



## 5.4. ESKU-HARTZE EKONOMIKOAK

Gastuen esparru honetan **5 programa aztertu dira**, zehazki hauek:

- Donostia Turismoa.
- Sustapena, S.A.
- Dbus.
- Mantenua eta hiri zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa.
- Proiektu eta obrak.

### 5.4.1. DONOSTIA TURISMOA

#### ● PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA

Donostia Turismoa, S.A. Donostiako Udalaren merkataritza-sozietate bat da, **Sozietate Anonimoko** izaera duena **titulartasuna erabat udal mailakoarekin**.

Bere helburua Donostiaren lurralde-eremuaren barnean turismoaren garapena bultzatzeko, zuzenean edo zeharka, lagungarri diren jarduera ekonomiko eta sozialak sustatu, garatu eta bultzatzea da.

2022. urteari begira haren **aurrekontu-zuzkidura % +15,07 areagotu da** 2021. urtearekin alderatuz, 3.326.601,00 eurotik **3.827.986,00** eurora igaroz. 2021ean % -14,18 jaitsi zen, funtsean COVID gaixotasunak eragindako krisiaren ondorioz.

**Udalaren** ekarpena 2.897.386,00 eurokoa da **gastu arruntean (+82.386,00 euro 2021. urtearekin alderatuz)** eta 72.000,00€ **kapital-gastuan (+32.000 euro 2021. urtearekin alderatuz)**.

DONOSTIA TURISMO	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.887.793,00	2.058.198,00	170.405,00	%9,03
2. kapitulua	1.398.808,00	1.697.788,00	298.980,00	%21,37
6. kapitulua	40.000,00	72.000,00	32.000,00	%80,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.326.601,00</b>	<b>3.827.986,00</b>	<b>501.385,00</b>	<b>%15,07</b>

6. kapitulua informatika-aplikazio ezberdinen erosketara dago bideratua.

#### ● PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Gastu eraldatzailearen partida espezifikorik gabe.

#### ● GOMENDIOAK

2020an eta 2021ean egindako gomendioak mantentzen dira.

- **Udal Berdintasunerako Plana txertatzeko Batzorde Politiko eta Teknikoan** parte hartzea.
- **Datuen bilketan sexuaren aldaera** gaineratzea.
- Hirian **berdintasunaren eta feminismoaren balioa lantzea** (ibilbideak, baliabideak, produktuak, etab.)

#### 5.4.2. SUSTAPENA, S.A.

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

Donostia Sustapena S.A hiria **ekonomikoki eta sozialki sustatu eta garatzea** helburu duen **udal sozietate publiko** bat da, berrikuntzaren, ezagutza sortu eta eraldatzearen, sareko lanaren eta proiektuak bultzatu eta kudeatzearen bidez, hori guztiori iraunkortasunarekin lotutako irizpideen baitan.

2022. urteari begira haren **aurrekontu-zuzkidura % -1,33 jaitsi da** 2021. urtearekin alderatuz, 15.536.460,00 eurotik **15.329.610,00** eurora igaroz.

**Udalaren ekarpena** gastu arruntera bideratuta dago eskusiboki, eta 2022. urteari begira haren zenbatekoa 7.030.00,00 eurokoa da **(-147.000,00 euro 2021. urtearekin alderatuz)**

FOMENTO S.A.	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.168.165,00	3.370.568,00	202.403,00	%6,39
2. kapitulua	6.669.075,00	7.453.542,00	784.467,00	%11,76
4. kapitulua	5.699.220,00	4.505.500,00	-1.193.720,00	-%20,95
<b>GUZTIRA</b>	<b>15.536.460,00</b>	<b>15.329.610,00</b>	<b>-206.850,00</b>	<b>-%1,33</b>

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Egun **Emakume eta gizonen berdintasunerako Plana** eratzten ari dira **Sustapena, S.A. sozietatean**. Ez da aurrekontu-zuzkidura espezifikorik aurreikusitako 2022. urteari begira, Plana diseinatzeko zain. Behin amaituta, eta proposatutako neurriekin, dagokion aurrekontu-zuzkidura egin ahalko dute.

Nabarmendu behar da aurrekontuarekin izandako bilkuretan generoaren ikuspuntutik interesgarriak diren analisirako ildoak identifikatu direla (nagusiki emakumeei zuzendutako ekintza positiboak diru-laguntzen deialdietan). Horien analisian eta berdintasunerako unitatearekin duen inpaktuan sakonduko da 2022an zehar.

- **GOMENDIOAK**

**Diru-laguntzen ildo ezberdinen eta horiek osatzen dituzten klausulen inpaktua aztertzea genero-ikuspegitik.**

#### 5.4.3. DBUS.

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

Dbus enpresa publikoak **45.301.713,00 euroko aurrekontu bat** du 2022. urterako, 2021. urteko aurrekontuarekin alderatuz **igoera txiki bat (% +1.01)**. Udal aurrekontuen % 10,66, beraz, 2021. urtearekin alderatuz (% 11,21) portzentajeak behera egin du.

2021ean bezalaxe, **Udalaren ekarpenak** berezko diru-sarrerren ondorioz sortutakoa gainditzen du (pandemiaren eta pertsona bidaiarien kopurua murriztearen eraginez). Hala, **2022rako 25.200.000,00 euroko ekarpena dugu gastu arruntean, eta 350.000,00 eurokoa kapital-gastuan**. Zerbitzuak ematearen ondorioz sortutako diru-sarrerren aurreikuspena 19.751.713,00 eurokoa da 2022an.

DBUS	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	30.531.589,00	32.476.146,00	1.944.557,00	%6,37
2. kapitulua	7.682.177,00	9.156.322,00	1.474.145,00	%19,19
3. kapitulua	49.000,00	46.000,00	-3.000,00	-%6,12
6. kapitulua	3.500.000,00	2.624.000,00	-876.000,00	-%25,03
8. kapitulua	2.365.669,00	207.985,00	-2.157.684,00	-%91,21
9. kapitulua	721.560,00	791.260,00	69.700,00	%9,66
<b>GUZTIRA</b>	<b>44.849.995,00</b>	<b>45.301.713,00</b>	<b>451.718,00</b>	<b>%1,01</b>

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan gastu eraldatzailearen **igoera adierazgarria (% +614,29) nabarmentzen da positiboki**, 2021ean 7.000 eurotik 2022an 50.000 eurora igaroz, **Berdintasunerako III. plana txertatzera** bideratuta.

DBUS	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	7.000,00	50.000,00	43.000,00	%614,29
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.000,00</b>	<b>50.000,00</b>	<b>43.000,00</b>	<b>%614,29</b>

- **GOMENDIOAK**

Berdintasun-politikekin **konpromisoa** eta horiekiko **inplikazioa mantentzea** lan arloan **soldata-arrakala** hautemateko prozesuan.

#### 5.4.4. MANTENUA ETA HIRI ZERBITZUAK; ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

*Azpiegiturek* gastuen politikari dagokion **Mantenua eta hiri zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa** programa **igo egin da 2021. urtearekin alderatuz, % +10,15ean**, 1.429.847,00 eurotik 1.575.047,00 eurora igaroz. Aurrekontuen gainean duen isla ere igo egin da, % 0,36tik % 0,37ra.

HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.067.347,00	1.100.547,00	33.200,00	%3,11
2. kapitulua	114.500,00	44.500,00	-70.000,00	-%61,14
6. kapitulua	248.000,00	430.000,00	182.000,00	%73,39
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.429.847,00</b>	<b>1.575.047,00</b>	<b>145.200,00</b>	<b>%10,15</b>

2. kapituluan izandako jaitsiera, funtsean, Kanpoko beste lan batzuk (35.000,00 euro) izeneko 227.99 partida eta Ikerketa eta Lan teknikoak (45.000,00 euro) izeneko 226.09 partidak desagertzearen ondorio da.

**6. kapitulari** dagokionez, hauek dira hartan barneratzen diren partidak:

Hiri mantentza eta zerbitzuak		430.000,00
649.01	Bestelako ibilgetu materiala	55.000,00
643.01	Ikerketa, azterketak eta proiektuak	100.000,00
601.02	Apaingarrietan burututako lanak	105.000,00
601.01	Erabilera orokorrerako azpiegitura eta urbanizazioa	170.000,00

Partiden xehetasunak ez du generoari dagokionez garrantzitsuak diren partidak identifikatzea ahalbidetzen.

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailearen gastu espezifikorik gabe.

- **GOMENDIOAK**

<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Puntu kritikoetan</b> jarduteko <b>partida espezifikoak berreskuratzea.</b></li> <li>● <b>Kontratazio-pleguetan berdintasunerako klausulak</b> barneratzea.</li> </ul>
--

#### 5.4.5. PROIEKTU ETA OBRAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

*Azpiegiturak* gastuen politikari dagokion **Proiektu eta obrak** programa **igo egin da 2021. urtearekin alderatuz, % +45,96an**, 5.356.651,00 eurotik 7.818.831,00 eurora igaroz. Aurrekontuen gaineko portzentajeak gora egin du (% 1,34koa zen 2021ean eta % 1,84koa da 2022an).

PROIEKTU ETA OBRAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.314.868,00	2.292.444,00	-22.424,00	-%0,97
2. kapitulua	80.000,00	92.254,00	12.254,00	%15,32
6. kapitulua	2.961.783,00	5.434.133,00	2.472.350,00	%83,48
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.356.651,00</b>	<b>7.818.831,00</b>	<b>2.462.180,00</b>	<b>%45,96</b>

Programan izandako igoera, funtsean, **inbertsioei buruzko 6. kapituluarekin** lotzen da, xehetasun honekin:

Proiektu eta obrak		5.434.133,00
601.03	Felix Irazo aparkalekua	164.134,00
601.04	Kontxako baranda 2. fasea	800.000,00
601.08	Haizearen Orrazia birgaitzea	400.000,00
601.09	Alai Alden irisgarritasunarako hobekuntzak	400.000,00
601.10	Sorleku parkea	200.000,00
601.11	Ferrerias proiektua	100.000,00
601.12	Antso Jakitunaren hiritartzea	850.000,00
601.13	Anoetako urbanizazioa	499.999,00
622.02.01	Pescaderia eraikina	1.600.000,00
643.01	Segurtasuna eta osasuna koordinatzea	220.000,00
643.02	Ikerketak eta proiektuak	200.000,00

- **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailearen gastu espezifikorik gabe.

- **GOMENDIOAK**

· Aurreikusitako <b>inbertsioetan genero-ikuspegia txertatzea.</b>
· <b>Kontratazio-pleguetan berdintasunerako klausulak txertatzea.</b>
· <b>Puntu kritikoetan jarduteko partida espezifikoak sortzea.</b>

## 5.4. ESKU-HARTZE OROKORRAK

Gastuen esparru honetan **programa 1 aztertu da**: Herritarren parte-hartzea.

### 5.4.1. HERRITARREN PARTE-HARTZEA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU BILAKAERA**

Zerbitzu Orokorrak gastuen politikari dagokion **Herritarren parte-hartzea** programa **modu adierazgarrian igo da 2021. urtearekin alderatuz, % +179,42an**, 1.042.410,00 eurotik 2.912.684,00 eurora igaroz. Aurrekontuen gaineko portzentajea % 0,26tik % 0,69ra areagotu da.

HERRITARREN PARTE HARTZEA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	538.006,00	547.592,00	9.586,00	%1,78
2. kapitulua	311.400,00	319.888,00	8.488,00	%2,73
4. kapitulua	88.004,00	95.204,00	7.200,00	%8,18
6. kapitulua	105.000,00	1.950.000,00	1.845.000,00	%1757,14
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.042.410,00</b>	<b>2.912.684,00</b>	<b>1.870.274,00</b>	<b>%179,42</b>

Programa honen **igoera, nagusiki, 6. kapituluarekin** lotzen da. Bertan bi partida berri gaineratu dira, **619.01 Aurrekontu Parte-hartzailea 2022-2023 1.500.000,00 euroko** zenbatekoarekin eta **619.02 Ekialdeko Distrituko Aurrekontu Parte-hartzailea 400.000,00 eurorekin**. **Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren ondoriozko proiektuak txertatzera** bideratutako zuzkidurak.

**2. kapitulari** dagokionez, **igoera +8.488 eurokoa** izan da 2021. urtearekin alderatuz. Igoera hori bertako **partida garrantzitsuenekin** lotzen da, hala zenbatekoari dagokionez nola herritarrengan duten eraginari dagokionez. **226.99 Bestelako gastuak** izeneko partidaz ari gara, zeinaren zenbatekoa, guztira, 279.700,00 eurokoa baitzen 2021ean eta 288.188,00 eurokoa baita 2022an.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
<b>226.99</b>	<b>Bestelako gastuak</b>	<b>288.188,00</b>
226.99.02	Lurralde partaidetza	148.188,00
226.99.03	Asoziazionismoa sustatzea	50.000,00
226.99.04	Partaidetzarako udal zeharkakotasuna	55.000,00
226.99.05	Sektore eta biztanleria partaidetza	15.000,00
226.99.06	Sektore eta gai partaidetza	20.000,00

**4. kapitulua** 2021eko 88.004 eurotik 2022ko 95.204 eurora igo da guztira. Igoera hori **481.08 Parte Zaharrear bizi Auzo Elkarteari emandako diru-laguntza (7.200 euro)** diru-laguntza ildo berriaren sorreraren ondorio da eskusiboki.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
481.01	Dirulaguntzak eta hitzarmenak	70.374,00
481.02	Zubietako Batzorderako transferentzia	5.000,00
481.04	Igeldoko Herri Kontseilurako dirulaguntza	7.000,00
481.05	Osteguna-Irale Auzo Elkartea	3.500,00
481.07	Egia Bizirik elkarterako dirulaguntza	2.130,00
481.08	Parte Zaharrea bizi auzo elkarterako dirulaguntza	7.200,00

• **PROGRAMAN BARNERATUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2022. urteari begira **10.000 euroko zuzkidura mantentzen da**, hiriko **puntu kritikoaren maparen** proiektura bideratuak (226.99.06 Parte-hartze sektore zein gaikakoa partida).

HERRITARREN PARTE HARTZEA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	10.000,00	10.000,00	0,00	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.000,00</b>	<b>10.000,00</b>	<b>0,00</b>	<b>%0,00</b>

• **GOMENDIOAK**

**Berdintasun-politikekin konpromisoa** eta horiekiko inplikazioa **mantentzea puntu kritikoetan esku-hartzeko prozesuan.**

## GASTU ERALDATZAILEAREN BARIAZIOAREN GAINKO JARRAIPENA

Donostiako Udaleko “Aurrekontuen analisisien txostenetan” 2017az geroztik maiztasunez islatu den datuetako bat gastu eraldatzaileak aurrekontu osoaren gainean suposatzen duen zenbatekoa eta portzentajea izan da. **Gastu eraldatzailea genero aldetiko ezberdintasuna sostengatzeko oinarritzko egiturak hausteko, zein desberdintzak sortu eta errepikatzen duten mekanismoak desmuntatzeko lagungarri den hura dela ulertuta.**

Hurrengo taulan eta 2022rako identifikatutako gastu eraldatzailearen eboluzioaren inguruko xehetasuneko analisi bat egin aurretik, datu horiek 2017az geroztik izan duten bilakaera islatzen da (ez dira aurreko txostenetako datuak jasotzen, datu alderagarririk ez dagoelako):

Berdintasun-programaren aurrekontuaren zenbatekoa.

Berdintasun-programaren aurrekontuaren portzentajea (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean.

Berdintasun arloko partidak (gastu eraldatzailea) dituzten sail kopurua.


Gastu eraldatzailearen urteko zenbatekoa.

Gastu eraldatzailearen portzentajea (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean.


	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Berdintasun Programaren Aurrekontua</b>	747.661€	898.190€	966.041€	1.004.374€	1.087.353€	1.079.110€
<b>Berdintasunaren Aurrekontua (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean</b>	% 0,18	% 0,20	% 0,21	% 0,23	% 0,27	% 0,25
<b>Berdintasun arloko partidak dituzten sail kopurua</b>	13	13	13	14	13	13
<b>Gastu eraldatzailearen zenbatekoa</b>	1.590.538€	1.839.312€	2.002.711€	2.220.903€	2.453.343€	2.702.398€
<b>Gastu eraldatzailea (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean</b>	% 0,38	% 0,41	% 0,43	% 0,49	% 0,61	% 0,64

Positiboki nabarmentzen da berdintasun-programako aurrekontuaren zenbatekoa (2022ko aurrekontua salbuetsita; horren azalpena hurrengo orrialdetan zehazten da) **gastu eraldatzailearen zenbateko osoa** eta gastu horrek Udalaren aurrekontu osoaren gainean suposatzen duen **portzentajea urtez urte pixkanaka areagotzea**. Haatik, **portzentaje horrek gora egitearen alde egiten dugu**, guztietan % 1aren azpitik baitago. Era berean, **ahalik eta sail gehienetan berdintasun arloan partida espezifikoak izatearen alde egiten dugu**.



**BERDINTASUN PROGRAMAKO AURREKONTUAREN BILAKAERA**







**GASTU ERALDATZAILEAREN BILAKAERA**



Hurrengo koadroan **2022rako aurrekontuetan sartutako gastu eraldatzailea** laburbiltzen da, **aurrekontu osoaren gainean % 0,64ko portzentajea** suposatzen duena.

UDAL AURREKONTUEN GASTU ERALDATZAILEA 2022						
Unitatea	1. kapitulua	2. kapitulua	4. kapitulua	6. kapitulua	GUZTIRA	Aurrekontua guztira (%)
Berdintasuna	460.207,00	296.703,00	192.200,00	130.000,00	1.079.110,00	% 0,25
Kooperazioa			843.748,00		843.748,00	
Gizarte Ekintza	188.087,95	16.000,00		150.000,00	354.087,95	
Hezkuntza programak		47.673,00			47.673,00	
Giza eskubideak		12.000,00			12.000,00	
Kultura aniztasuna		8.944,00			8.944,00	
Donostia Kultura		199.000,00			199.000,00	
Udalaren Musika eta Dantza eskola		5.100,00			5.100,00	
Gazteria		25.500,00			25.500,00	
Donostia Kirola		21.735,00			21.735,00	
Udaltzaingoa		3.000,00			3.000,00	
Dbus		50.000,00			50.000,00	
Herritarren parte-hartzea		10.000,00			10.000,00	
Hirigintza		25.000,00			25.000,00	
Udal langileen berdintasun arloko prestakuntza (*)	17.500,00				17.500,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>665.794,95</b>	<b>720.655,00</b>	<b>1.035.948,00</b>	<b>280.000,00</b>	<b>2.702.397,95</b>	<b>% 0,64</b>

(\*) Zenbateko honetan ez dira sartzen Gizarte ekintzako programetara atxikitako prestakuntzako 4.500 euroak.

## I. ERANSKINA: EMENDAKINAK

2022ko udal aurrekontua onartzeko prozeduran onartutako emendakinetan, **gastu eraldatzailea handitu egin da**, partida berriak sartu direlako edota lehendik zeudenetako batzuk handitu direlako.

Hona hemen aldaketan xehetasunak:

3. **Programa:** Berdintasuna 1.Kapitulua  
Kontzeptua: lanaldi osoko pertsona baten gehikuntza. Zenbatekoa: 47.993,00€ gehiago.
  
4. **Programa:** Hezkuntza programak  
- 226.99.06 partida berria, 10.500,00 eurokoa.  
Kontzeptua: LGTBQ+ diskriminazioaren eta bullying-aren aurkako kanpaina.  
  
- 226.99.02 partida 11.900,00 eurotan handitzea.  
Kontzeptua: "Genero-indarkeriaren prebentziorako programa".
  
5. **Programa:** Haurren eta familien prebentzioa  
227.04.02 partida 11.900,00 eurotan handitzea  
Kontzeptua: "Indarkeria matxista prebenitzeko programa".
  
6. **Programa:** Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza  
481.01 partida 23.878,00 eurotan handitzea  
Kontzeptua: "Lehia askeko lankidetzarako diru-laguntzak".

Aldaketa horiek kontuan hartuta, 2022ko udal-aurrekontuetan sartutako gastu eraldatzaile guztia jasotzen da jarraian. Bere **ordezkaritza pixka bat handitu da (+0,02 puntu portzentual) aurrekontuen hasierako proposamenarekin alderatuta**, zehazki, % **0,66**.


UDAL AURREKONTUEN GASTU ERALDATZAILEA 2022						
Unitatea	1. kapitulua	2. kapitulua	4. kapitulua	6. kapitulua	GUZTIRA	Aurrekontua guztira (%)
Berdintasuna	508.200,00	296.703,00	192.200,00	130.000,00	1.127.103,00	%0,27
Kooperazioa			867.626,00		867.626,00	
Gizarte Ekintza	188.087,95	27.900,00		150.000,00	365.987,95	
Hezkuntza programak		70.073,00			70.073,00	
Giza eskubideak		12.000,00			12.000,00	
Kultura aniztasuna		8.944,00			8.944,00	
Donostia Kultura		199.000,00			199.000,00	
Udalaren Musika eta Dantza eskola		5.100,00			5.100,00	
Gazteria		25.500,00			25.500,00	
Donostia Kirola		21.735,00			21.735,00	
Udaltzaingoa		3.000,00			3.000,00	
Dbus		50.000,00			50.000,00	
Herritarren parte-hartzea		10.000,00			10.000,00	
Hirigintza		25.000,00			25.000,00	
Udal langileen berdintasuna arloko prestakuntza (*)	17.500,00				17.500,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>713.787,95</b>	<b>754.955,00</b>	<b>1.059.826,00</b>	<b>280.000,00</b>	<b>2.808.568,95</b>	<b>%0,66</b>


(\*) Zenbateko honetan ez dira sartzen Gizarte ekintzako programetara atxikitutako prestakuntzako 4.500 euroak.

Hurrengo orrialdeetan, emendakinen egin ondoren, gastu eraldatzaileak 2017tik 2022ra izan duen bilakaeraren koadroa eta grafikoak irudikatzen ditugu:

**GASTU ERALDATZAILEAREN BILAKAERA**

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Berdintasun Programaren Aurrekontua</b>	747.661€	898.190€	966.041€	1.004.374€	1.087.353€	1.127.103€
<b>Berdintasunaren Aurrekontua (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean</b>	%0,18	%0,20	%0,21	%0,23	%0,27	%0,27
<b>Berdintasun arloko partidak dituzten sail kopurua</b>	13	13	13	14	13	13
<b>Gastu eraldatzailearen zenbatekoa</b>	1.590.538€	1.839.312€	2.002.711€	2.220.903€	2.453.343€	2.808.568 €
<b>Gastu eraldatzailea (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean</b>	%0,38	%0,41	%0,43	%0,49	%0,61	%0,66





### BERDINTASUN PROGRAMAKO AURREKONTUAREN BILAKAERA

